



uk

31. zenbakia / 2002 uztaila

uda **2002**

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. San Juan sua, Asier Mentxaka.
- 6. ELKARTASUNA. Komite Internazionalistak. Nora Araojo.
- 8. PHOTO-FINHITZ. Unai Elorriaga & Iker Elorriaga.
- 9. LEHEN ETA ORAIN. Arrigunaga.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 18. Berango 22.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Pertsianak, Asier Mentxaka.
- 28. BERBETAN. Maddalen Iriarte, Javier G. del Herrero.
- 32. DOKUMENTUA. Paelletako txabolak, Kepa Urkizaren argazkiak.
- 38. ERREPORTAJEA. Egun bateko oporrak.
- 42. BIZIMODUAK. Udako kirolariak.

KULTURA

- 44. FOTOGRAFIA. Alvaro González-en argazkiak.
- 48. ZINEMA. Udako estreinaldiak, Borja Elorza....
- 50. MUSIKA. Udako kontzertuak. Zodiacs musika taldea.
- 52. IRAKURGAIK. Hasier Etxeberriaren *Bost idazle* liburua.
- 54. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
- 56. KOMUNIKAZIOA. Irrati libreak gurean; *Pornolore & Argia* aldizkariak.

EUSKARAZ

- 58. URIBERTSOAN BARRENA. Fredi Paiari elkarizketa. Jaietan bertsoz. Begi belarri eta Xabier Paiaren bertsoak. Hau guztia, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik.
- 62. AKABUKO PUNTE. Sopelako Jon Uribegaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
- 64. EUSKARA. Berriak, elkarizketa...

AMAITZEKO


- 66. JAN ETA EDAN. Gaizka Escudero-ren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Punta Galea, Algortako txoko bat. Sabin Arana, puntako sukaldaria elkarizketatu dugu. Non jan? Adibidez, La Estrada jatetxean. Eta pintxoak? Danena tabernan.
- 72. HOROSKOPOA.
- 73. KOMIKIA. Gorka Vázquez.
- 74. AITORMENAK. Natxo de Felipe.
- 75. FLASH BACK. Paella eguna, 1956. Bittor Egurrola.



28 Maddalen Iriarte

Berbetan

ETBko estudioetara joan gara eta han Maddalen Iriarte albistegietako aurkezlea elkarizketatu dugu.



7 Toru Kannari



32 Txabolak



56 Pornolore



68 Sabin Arana



74 Natxo de Felipe



57 Irrati libreak



● zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

● **Boluntzarreta**
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIIDEA: meztzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Javi Gonzalez del Herrero, Maitane Burusko, Itziar Bened, Urtzi Iglesias
FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentsaka
TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron
AHOLKULARI: GRAFIKOA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Gorka V squez
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Unai Elorriaga, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merch n, Esti Ezkerra, Berbots eta Bizarra Lepoan Euskararen Elkartea
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Berta Cachorro (94 491 13 37)
FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: ESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
' BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen TOPAGUNE ko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskararen Elkarrean dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Errea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



TOPAGUNEa



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udaleko Euskara Zerbitzua

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzua dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jaso du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Behar-beharrezkoa da

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Bagoaz oporretan, irailera arte!

Sarritan gauzak ez dira espero izaten dugun moduan gertatzen eta hori islatu nahi izan dugu ale honetako azalean. Uda bete-betean gaude eta udan jai handia da Getxon **paella eguna**. Lehen egun horretan paella lehiaketa ezezik txabola lehiaketa ere egiten zen. Garai hartan **Kepa Urkizak** eraikuntza ikusgarri haiei hartutako irudi ederrak ikusi ahal izango dituzue. Ikusi egu-nero ikusten dugu **Maddalen Iriarte** telebistan berriak ematen, bera ezagutu nahi izan dugu eta lurretaraino joan ginen. Komunikabideekin jarraituz, ez dakigu ona ala txarra den baina honez-kero badaukagu euskarazko aldizkari erotiko-pornoa, **Pornolore**. Fisikoki ez, baina gure azken orrialdeko *Aitormenak* atalean **Natxo de Felipe** biluzten saiatu gara. Bestetik, aipatu aipatu behar dugu, orain arte gure kolaboratzaile fina izan den **Unai Elorriagak** ere opor luzeak hartu-ko dituela. Inoiz itzuliko da gureraz; hemendik onena opa nahi diogu orain eskuartean darabilen zereginean. Urrunetik gurera datozen lagunak gero eta gehiago dira, gu Japoniako **Toru Kannari** eta **Nora Arajo** Filipinetako alabarekin egon gara. Baina ez ditugu herriko lagunak ahazten: **Sabin Arana** *Jolastoky*-ko sukaldaria, **Fredi Paia** bertsolaria eta beste herrikide asko topatuko dituzu orrialdeotan. Gure partetik, gogora ezazu, oporretan ere bagoazela eta, hortaz, abuztuan ez da UKrik izango. Izan zoriontsu edo saiatu, behintzat!

UK-ko lantaldea

bestee esanak

“Euskal Herriko gizartearen gehiengoa euskal selekzioaren alde dago, horretan ez dugu dudarik”

Martxel Toledo (ESAITEko ordezkaria)

“Jendeak uste du musika oso garestia dela, eta lapurtu egiten du. Hori delitua da. Autoak ere garestiak dira eta hori ez da lapurtzeko aitzakia”

Alain Levy (EMI Music etxeko Presidentea)

“Euskara defendatu behar dugu beste hizkuntzak mespretxatu gabe, elkarrekiko ulermena lortzeko asmoarekin”

Juan San Martín (Idazlea eta Euskal erkidegoko lehenengo Arartekoa)

“Nahikoa da 20 euskaldunen artean erdaldun bat egotea, denak erdaraz hitz egiten hasteko”

Gabi Basañez (EHEko kidea)

Osakidetzan erderaz por favor

Joandako ekainaren hamazortzi, arrastegiko bostak aldera. Gure bost urteko alabak buruan kolpe bat hartu eta Sopelako anbulatoriara daroagu. Bertoko mediku batek aztertu ondoren, haren aholkuz Gurutzetara daroagu froga ezberdinak egin diezaioten, azkenean gaua bertan eman ondoren, hurrengo egunean etxe-rantz bueltatu gara lasaia. Ekainak 20an Sopelako anbulatoriotik pasatu gara berriro.

Lehen lehenengoz bai Sopela bai Gurutzetako langileei nire esker onak adierazi nahi nizkieke euren lana betetzen ondo badakitelako. Hala ere, beste alde batetik esan beharra dago euskaldun hiztunei ez zaizkie-la euren eskubideak inondik inora errespetatzen, are gutxiago hiztun horiek ume euskaldunak direnean.

—¿Cuantos deditos ves? Umea isilik. ¿Cuantos deditos ves? Umea gero eta larriago espainolez erant-zuten ez dakielako. —Aitaa, ez dakit zelan esan!!!

Medikuak aginduak espainolez, guk itzultzailearen lanak egiten, horrela pasatu genuen arrastiri-gaua, goizaldean mediku euskaldun bat agertu zen arte. Azkenean mediku batek berarekin zuzenean komuni-katzea lortu zuen!!

Egoera hau normala da? Normala da jaio, hazi eta bizi garen herri honetan atzeritar modura sentitzea? Normala da umea “imitatzen” ari garela entzun beharra mediku baten ahotik? Nor da mugak jartzen ditue-na? Gauza bera esango zukeen umea erdaldun hutsa izan balitz? Hauek dira gure autogobernuak sortuta-ko “euskal erakundeak”?

Mikel Begoña Garaizar. Sopela.

[irudia]

San Juan

San Juan bagileko
sugek eta sapok
laban erreteko
arto eta garik
kaxan gordetako!

Solidarioak

Nora Araojo >
Pagkakaisa-ko presidentea



Pagkakaisa elkarteak Euskal Herrian bizi diren Filipinetako etorkinen alde lan egiten du. Joan den maiatzean sortua, ekainaren 16an, elkartea aurkeztu zuten Erromon. Nora Araojo presidentea da. 20 urte daramatza hemen.

—Zeintzuk dira *Pagkakaisa*-ren helburuak?
—Gure kultura mantentzea eta zabaltzea dugu helburu. Horrez gain, Euskal Herrian bizi diren filipinarrei integratzen lagundu nahi diegu. Ez da arazo handirik izaten hemengo jendeak ondo hartzen gaituelako. Arazorik larriena hizkuntza jakitea izaten da.
—Zer esan nahi du *Pagkakaisa* hitzak?
—Hitz filipinarra da, eta *elkartasuna* esan nahi du.
—Elkartea Erromoko San José elizan aurkeztu zenuten orain dela gutxi. Zergatik Getxon?
—Uribe Kostan filipinar asko daude, bereziki Getxon. Euskal Herri osoan 300 bat izango gara eta ehun inguru Getxon bizi gara.
—Ze harremana daukazue inguruko gobernuz kanpoko beste erakundeekin?
—Egia esan behar badut, ezin hobe. Batzuek asko lagundu gaituzte lehenengo urratsak ematen; *Su eta Lur, Mujeres del mundo...* m
Harremanetarako: 658 72 77 69 N. Araojo

Komite Internazionalistak
elkartasun soziala eta politikoa



Komiteetako kideak Ertamerikako lagunekin

Euskal Herriko Komite Internazionalistak garatu gabeko herriein elkartasuna lantzen duen taldea da. Beraiek “elkartasun politikoa” deitzen diote egiten duten lanari eta argi utzi nahi dute KI taldea ez dela beste GKE arrunt bat: “*Brigadistok, herrialde pobreetara joaten garenean hango herritarren aginduetara jartzen gara. Han, bizi baldintzak hobetzeko lan egiten duten taldeek lana antolatzen dute eta guk ahal dugun neurrian laguntzen diegu. Ez goaz inoren etxera lana antolatzeraz*”, azaldu zигuten. Komiteak 70eko hamarkadaren ha-

sieran sortu ziren eta ordutik hainbat lekutan ibiliak dira, besteak beste, Palestinan, El Salvadorren edo Guatemalan. Aurretik, brigadistak Mexiko, Kuba eta Nikaraguara joango dira. Printzipioz edonor izan daiteke brigadista. Adinez nagusia izatea da bete behar den baldintza bakaretako bat. Horrez gain interesatuek argi eduki behar dute zer diren Komiteak eta zertarako egiten diren brigadak. Horretarako bidaia baina lehen tailerrak antolatzen dituzte. m

Harremanetarako: www.herriak.org/ki



Toru Kannari > gitarra jole euskalduna


私は理です

* Ni Toru naiz. Horrela ahozkatzen da: ‘watasi wa Toru desu’

Toru Kannari Hakodaten (Japonia) jaio zen 1957an. Zazpi urterekin gitarra jotzen hasi zen. Besteak beste, Ban Osawa, T. Tezuka eta K. Kitamura musika irakasleekin ikasi zuen eta 18 urterekin bere musika ikasketak bukatu zituen. Toruk sari ugari irabazi ditu, TVEn eta ETBn jo du sarritan eta lau disko plazaratu ditu. 1987tik gitarra irakaslea da Areetako Andrés Isasi Kontserbatorioan. Euskaraz ere badaki Toruk.

Gaur egun euskal herritarra izateaz gain, Toru Kannari euskalduna eta euskaltzalea da. Orain dela urte bi kontserbatorioak eman zion aukera aprobetxatu eta euskara ikasten hasi zen Algortako Lauaxeta euskaltegian. Laugarren mailan dago eta bere ikasketak bukatzeko asmoa adierazi zigun euskaraz mantendu gauen elkarrizketan.

—Noiz eta zergatik etorri zinen Euskal Herrira?
—Orain dela bost urte oposaketak atera ziren, aurkeztu nintzen eta gauditu nituen. Lehenago urteak eman nituen Espainian zehar ikasten eta irakasten.
—Hona heldu baino lehen euskara eta Euskal Herriaren berri bazenuen?
—Ez. Katalunia, Euskal Herria, euskara eta gauza horiek guztiak hona etorritakoan ezagutu nituen. Oso ondo integratu nintzen eta gustura nago benetan. Hasieran herri-mina neukan baina gaur egun bi urterik behin bueltatzen naiz Japoniara; horrekin nahiko dut.
—Zer dela eta hasi zinen euskara ikasten?
—Hemengo jendeak hasieratik esan zidan Euskal Herriko hizkuntza euskara dela eta, nahiz eta Getxon bizitzeko ezinbestekoa ez den, nik beti eduki dut euskara ikasteko



Lauaxeta euskaltegian euskara ikasten dabil Toru Kannari

“Ibilaldi egunean, informazioa eskatzera joan nintzen eta eman zidana erdalduna zen. Geroago beste batzuek ere euskaraz berba egiten ikusi ninduten; aho zabalik geratzen ziren”


gogoa. Getxoko kontserbatorioak aukera eskaini zidanean ez nuen birritan pentsatu.
—Zer kostatu zitzaizun gehiago; gaztelania ala euskara ikastea?
—Uf, ez dakit. Gaztelania oso gogorra egin zitzaidan; hizkuntza berri bat zen, alfabeto berri bat... Askok kostatu zitzaidan baina gaur egun ondo hitz egiten dut. Arazoa orain euskara da; aditzak, ahoskera... Laugarren mailan nago eta zaila egiten zait baina indioek bezala bada ere, saiatzen naiz hitz egiten.
—Eta jarraitzeko asmorik bai? Noizko aterako duzu EGA?
—Bai, noski. Oso gustura nago euskalte-

gian, lagun onak egin ditut eta, epe luzean, bai; EGA ateratzen saiatuko naiz.
—Harrigarria da japoniar bat euskaraz berba egiten ikustea...
—Bai, Ibilaldi egunean, informazioa eskatzera joan nintzen eta eman zidana erdalduna zen. Geroago beste batzuek ere euskaraz berba egiten ikusi ninduten eta aho zabalik geratu ziren.
—Estruktura aldetik, euskarak zerikusirik ba al dauka japoniarrarekin?
—Bai; oso gauza aluzinantea iruditzen zait. Gramatika aldetik oso antzekoak dira. Adibidez, hizkuntza bietan, aditza esaldiaren bukaeran jarri behar da. m

[photo-phinhitz]

Argazkia: **Iker Elorriaga** / Testua: **Unai Elorriaga**

Jokoaren barruan



LA KANTERA, ARRIGUNAGA

“Horixe da kontua: lekuz kanpo ez gelditzea”

Kontua da lekuz kanpo ez gelditzea. Eta gu hemen gaude gustura. Orain lau baino ez gaude, baina beste batzuetan hamabi ere egoten gara hemen. Horixe da kontua: lekuz kanpo ez gelditzea. Gu lekuz kanpo gaude leku gehienetan. Lekuz kanpo gaude etxean eta lekuz kanpo gaude bazkari familiarretan. Hemen ez gaude lekuz kanpo. Hau da leku bakarra. Beste leku guztietan lekuz kanpo gaude, baina hemen ez. Eta hori da kontua.

Ematen du nahiko leku deserosoa dela. Ematen du dena dela hautsa eta zikinkeria eta hondakina gure leku honetan. Ematen du dena dela harria eta dena dela hondarra. Ematen du egurrak era modu arbitrarioan daudela ipinita eta desordena handia dela. Horixe da bai argazkian ikusten dena.

Baina hori guztiori itxurak egiteko baino ez da. Dena pentsatu genuen argazkia egitera etorri zirenean: desitxuratu egingo dugu guztia, hankaz gora ipiniko dugu guztia. Baina argazkian ikusten ez dena da inportanteena. Justo kamera jarri zuten lekuan telebista daukagu guk. Gauden lekuan jesarri eta

telebista ikustera etortzen gara hona askotan. Via digital eta beste guztiak dauzkagu (pirateatuta, klaro) eta, esate baterako, Mundial osoa ikusi genuen hemen eta, esate baterako, orain dela gutxi estreinatu diren pelikulak ikusten ditugu. Eta horregatik esan genion argazkilariari ez ateratzeko telebista, jendez beteko zitzaigun bestela ingurua.

Gero, apur bat atzerago, argazkiaren enkoadretik kanpora, hozkailua daukagu, izozkailu eta guzti. Denetarik daukagu. Saltxitxak ere bai. Eta saltxitxak egiteko, jakina, sutea behar dugu: bitrozeramika. Hori ere ez da argazkian ikusten. Apropos egin dugu bitrozeramika ez ikusteko. Bestela inbidiak egongo ziren beste koadriletan.

Baina dutxa da onena. Ikusten dituzue nire ondoan dauden harri horiek, ezta. Ba hiru harri kenduta dutxa batera sartzeko pasabide bat dago. Eta patinean ibili ostean, gustura hartzen dugu dutxa telebista ikusi baino lehen. Eta hidromasajea dauka dutxak. m

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / ARRIGUNAGA edo AREATXU

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Getxoko antzerki eskola

Azkeneko bost promozioetan 200 profesional baino gehiago atera dira **eskola** ezagun honetatik. Eskola bera duela hogeit hamar urte jarri zuten eta gaur egun **erreferentzi** gunea da **antzekigintzan**

Arantxa lurre



Hasieratik egon da Getxoko Antzerki Eskolan Arantxa lurre; hasieran ikasle moduan, gero irakaslea izan zen eta gaur egun, zuzendaritzan egiten du lan.

—Noiz jakin zenuen aktorea izan nahi zenuela?

—Hasiera batean, zerbait ezberdina egiteko asmoarekin hasi nintzen, besterik ez. Ez naiz txikitatik aktorea izan nahi zuela zekien horietakoa.

—Gogoratzen al dituzu zure lehenengo urratsak antzerkian?

—Lehenengo bi urteak ahoa ireki gabe eman nituen, behartu ninduten arte. Orduan gaur egun baino askoz lotsatiagoa nintzen. Gero konfiantza hartu nuen eta laster konturatu nintzen nire benetako pasio antzeztea zela. Kazetaritza ikasketak amaituak nituen eta ETBn nengoen lanean bide bakar bat aukeratzeko ordua heldu zitzaidan.

—Eta antzerkia aukeratu zenuen...

—ETBn ondo kobratzen nuen eta gus-tura nengoen, baina lana oso estresantea iruditzen zitzaidan. Dirua alde batera utzi eta zorientzua egiten ninduen bidetik jarraitzea erabaki nuen.

—Egun zer zara, aktorea ala irakaslea?

—Gauza biak eta biak ditut gustuko. Eskolak bizitzeko ematen ditut, baina nire benetako pasioa antzeztea da. Zoritzarrez, honetatik bizitzea oso zaila da. m



Gaur egun 300 ikasle ditu eskolak

Denbora asko pasatu da Claudio Nadi argentinarra gurera etorri eta Getxoko Antzerki Eskola martxan jarri zuenetik. Orduan 10 ikasle baino ez ziren eta ez zeukaten ezta ikasteko aretorik ere (Getxo I institutuko gela batean ikasten zuten). Gaur egun, berriz, Getxoko Antzerki Eskolan 300 pertsona ikasten dute eta eskola bera oso ezaguna da estatu osoan. Barakaldokoarekin batera, Getxokoa Bizkaiko antzerki eskola profesional bakarra da, 1989an Eusko Jaurlaritzak aukera hori eskaini zionetik. Orditik hona bost promozio atera dira eta aktore horietako batzuk ospetsu egin dira zinea eta telebistari esker. Esaterako, Asier Gómezek *Un paso adelante* saioan lan egin du, Begoña Gómezek *Cirque du soleil*-en dabil eta Leire Berrocalek Getxoko Antzerki Eskolak eman duen aktore sarik ezagunena *Extasis* filmean eta *Más que amigos* saio eza-gunean behar egin du. Hala ere, Arantxa lurre eskolako zuzendari exekutiboak esan

zigunez, *“Getxoko Antzerki Eskolaren helburua ez da telebistarako aktoreak sortzea baizik eta aktore onak sortzea”*. Harrobirik gabe, antzerkiak ez du etorkizunik eta Getxoko Antzerki Eskolako arduradunek ondo dakite hori. *“Antzerkia lasterketa luze bat da. Arrakasta arinaren bila datorrenak gutxi irauten du hemen. Ospea ez da hemen dauden helburua baizik eta ondorioa”*. m

Datuak

- Zuzendariak: Arantxa lurre, Carlos Baiges eta Aintza Uriarte.
- 10 lagun hasi ziren. Gaur egun 300 ikasle dabilta ikasten Getxoko Antzerki Eskolan.
- Kurtsoak lau urte irauten du. Guztira 800 ordu dira. Irakasgaiak: dantza, ahotsa, antzerkiaren historia, antzezpena eta mugimendua dira.

Jaiak Getxon

hilabete osoko **parranda** auzorik auzo



Jendearen partehartzea da aurten jai batzordeen helburu nagusia

Paella egunarekin batera hasten dira jaiak Getxon eta gero, ia hilabete osoa eman dezakegu jaiz jai, auzorik auzo, bata bestearen atzean datoz eta guztiak. Jai batzordeetako kideekin egon gara eta gehienak bat datoz: jendearen partehartzea da helburu nagusia. *“Azken urteotan badirudi jaiak eta herritarrek urrundu egin direla”*, azaldu zigun Portu Zaharreko jai batzordeko kide batek. Horrela izan ez dadin eta uda hone-tan herritar guztiengana heldu ahal izateko, jai batzordeek eguneg egingo diren ekita-diak indartu nahi dituzte. Euskal kultura bultzatzea ere beste helburuetako bat da.

Horregatik, bertso saioak, herri kirolak eta euskal kulturarekin lotuta dauden hainbat ikuskizun antolatu dira. Aipamen berezia merezi dute San Inazio jaietan egongo diren bertso saioak; Egaña, Peñagarikano, Elortza eta orohar puntako bertsolariak etorriko zaizkigu-eta. Portu Zaharrean aspalditik egiten ez zen galtzontzilo lasterketa atzera egingo da aurten. Musika, jakina, egitarauen zutabeetako bat izango da. Esaterako, *Ken7*-k San Inaziotan joko du eta Erromon, *Doctor deseo*-k. Han, Reggae jaialdia ere egingo da. Jai batzordeek musu-truk egiten dute lan. Eskerrik asko! m

GETXO UDAKO JAIK 2002

PAELLA EGUNA uztailak 25

- Aixerotako landetan betiko egunpasa alaia Getxoko Itxas-Argia elkarte-lagunen borondatezko lanari esker.

SANTA ANA uztailak 26-28

- Aurten ohizko zuzeneko kontzertu indartsu barik apur bat eskasak. Ostiralean eta larunbatean, berbenak.

SAN INAZIOAK uztailak 27-31

- Azpimarragarriak: egunero Algortako kasinoan eguerdian egingo diren bertso saioak, su artifizialak (igandean eta asteartean), herri kirolak, txipiroi lehiaketa, eta, batez ere, koadrilentzako egitaraua.

ERROMOKO JAIK abuztuak 1-5

Azpimarragarriak dira kontzertuak: Doctor deseo, Eraso, Ene bada, Nazioarteko Reggae Jaialdia, bilbainadak... Bestetik, errokodromoa, trialsin, erakusketak, tailerrak...

PORTU ZAHARRA abuztuak 9-12

- Koadrilen jaitsiera beti ikusgarria izaten da. Ohi bezala eta itsasgorarekin batera, antzarrak eta kukaña. Galdia zegoen Galtzontzilo lasterketa berreskuaratuko da aurten. Azken egunean ezin da hutsik egin: marmitako eta pijama eguna.

ANDRA MARI abuztuak 15

- Gure auzo, honezkero ez hain errurala. Pilota partiduak, herri kirolak eta Itxas-Argiakoen dantza erakustaldia.



cianoplan s.a.

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopia.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopia kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Elkarte berritua

Getxoko merkatarien elkarteak izen eta irudi korporatibo berrituak aurkeztu ditu

Getxo Enpresa eta Merkataritza (Getxo Comercial y Empresarial) izango da elkar-te honen izen berria. Horrela erabaki zuten erakundeko kideek azkeneko bile-ran, bertan estatutuak ere aldatu zituz-ten. Oswaldo Uribe elkarte-ko presiden-tearen esanetan, aldaketa honen helbu-rua zera da: “*Elkartean biltzen diren sek-toreak baterabiltzea, ordezkatzea eta indartzea*”. Gaur egun, Getxon dauden ia 2.000 komertzioen laurdena elkarte honen bazkide dira. *Getxo Enpresa eta Merkataritza* elkartearen garrantzia gero eta handiago da eta honek aldaketa gehiago ekarri ditu. Orain dela gutxi egoitza berritu zuten eta hilerio ateratzen duten aldizkariak orrialde eta eduki gehiago edukiko ditu honik aurrera. Gainera, ohi bezala, moda pasarela, ikas-taroak, erakusleihoen lehiaketak eta beste batzuek jarraipena izango dute. m



Oswaldo Uribe elkarte-ko presidentea. Atzean, logotipo berria



Itxas-Argia elkarte-ko zuzendaritza batzordeko kideak Alluitz mendiko tontorrean

Itxas-Argia mendi taldeak

Getxoko ikurra den *aixerrota* itxura duen **postontzia** paratu du **Alluitz** mendiko tontorrean

Itxas-Argia mendi taldeko kideek postontzia ipini zuten Durangaldeko Alluitz mendiko tontorrean (1.040 metro) joan den ekainaren 16an, igandean. Ekimen honen helburua bikoitza izan da. Alde batetik, mendizaleei mendiko tontorrean daudela jakinaraztea eta bestetik, udale-

rriaren izena zabaltzea, postontzia Aixerror-taren kopia txiki bat da eta. Alluitzen ipini dutena ez da Itxas-Argi-koek jarri duten lehenengo postontzia; iaz ere beste bat jarri zuten Nafarroako Ezkaurre mende-tan. m

Harremanetarako: 94 430 06 62 / mendi@terra.es

Espedizioa, postontzia jartzeko lanak, postontzia bera eta lehenengo txartela



XVIII. Nazioarteko Folklore Jaialdia

Bolibia, Filipinak edota Poloniako **dantzak** ikusteko aukera Biotz Alai plazan



Algortako Itxartu dantza taldeak Euskadi ordezkatuko du jaialdian

Uztailaren 19 (ostirala) eta 21 (igandea) bitartean, Getxoko Kultur Etxearen eskutik XVIII. Nazioarteko Folklore Jaialdia egingo da Algortako Bihotz Alai Plazan. Mundu bazter guztietako taldeak egongo diren

arren, Euskal Herriko Itxartu taldea izango da jaialdiari hasiera emateko ardura izango duena. Hauez gain, lau talde gehiago pasatuko dira Getxotik hiru egun hauetan; ostiralean bertan, Itxartu taldearen erakus-

taldiaren ostean, *Cochabamba* bolibiarrak igoko dira oholtzara. Talde hau 1979an sortu zen, 27 lagun osatuta dago eta sari ugari irabazi ditu. Larunbatean Buriatia Errepublikako (Siberia hegoaldea) *Badma Seseg* taldea arituko da eta igandean, talde-rik beteranoena den Poloniako *Nowa Huta* (1953an sortua) eta *Karangahan* talde filipi-narra. Erakustaldi guztiak Algortako Biotz Alai enparantzan izango dira, gaueko hama-rretatik aurrera. m

EGITARAUA

- **Ostirala 19**, Itxartu (Euskadi) eta Cochabamba (Bolibia) taldeak Algortako Biotz Alai plazan, 22:00etan.
- **Larunbata 20**, Badma Seseg (Buriatar Errepublika) Algortako Biotz Alai plazan, 22:00etan.
- **Igandea 21**, Nowa Huta (Polonia) eta Karangahan (Filipinak) taldeak Algortako Biotz Alai plazan, 22:00etan.

Gaztetxea zen eraikina eraitsi egin dute

Lehenengoa *Sastraka* gaztetxea izan zen. Geroago herriko gazteek *Ibeta* baserria oku-patu zuten eta hura ere bota egin zuten. Hirugarrena, *Burdinola* gaztetxea izan da. Orain dela hile batzuk J. B. Uribarri kaleko lantegi abandonatua okupatu eta biltoki bihurtu zuten Getxoko hainbat gaztek. Maiatzaren 29an, Udaltzaingoa eraikina eraisteko agindu legala betearazten saiatu zen, baina alferrik. Ekainaren 13an, Er-tzaintza goizeko zazpitan azaldu zen Burdinolan, lantegia hustutzeko asmoz. Han 30 bat lagun zain zituzten teilatuan, batzuk kateatuak. Ertzainek banan-banan atera zituzten handik eta gero makinek erai-kina birrindu egin zuten. m

Gaztetxea bota zuten eguna




Leioztar bat Antartidan

Juan Iriberri biologoak Antartidara egindako bidaia kontatu digu. Esan digunaren arabera, hango egoerak zoritxarrez **okerrera** egiten du **etenik gabe**

Guztiok entzun dugu Antartidaren egoera okerrera doala egunez egun eta horrekin batera gainontzeko herrialdeak. Juan Iriberrrik arazo hau gertutik bizi izan du eta berarengana hurbildu gara espedizioaren gorabeherak ezagutzeko.

Juan Iriberri Donostian jaio arren leioztartzat ere badu bere burua. Geurera biologia ikastera etorri zen eta geroztik bere ibilbide profesionala oso emankorra izan da nazioartean. Egun EHUn mikrobiologiako irakasle dugu Juan Iriberrri. Orain dela hiru urte Antartidara joan zen bi hilabetez, ikerkuntza talde bateko kide. Planeta osoak duen ozeano masaren %10 da Antartida. Baina hau ez zen izan Iriberrri milaka kilometroko bidaia egitera bultzatu zuen arrazoi bakarra: *“Hidrografi-baldintzak agian dira alderdi interesgarriena eta aldi berean unaren tenperatura baxuek ere liluratu ninduten. Niretzat, erronka izateaz gain, aukera paregabea zen”*.

Oztopoak
Juan estatuko beste hogeita bat zientzialarirekin batera *Hesperides* izeneko itsasontzi polarrean abiatu zen 1998. urteko neguan, hots, Antartidako udan. Honek asko lagundu zien, ez zutelako klima arazo larririk jasan. Hala ere, itsaso gaiztoak eta haize boladek bidaiaaren iraganaldia oztopatu zuten, hala nola, untzia egun oso batez geldirik egotera behartu edota untzigainean 20 minutu baino gehiago ezin egon izatea. *“Aldez aurretik egunero zer egin behar genuen finkatua egon arren, honelako ezbeharrek inprobisatzera behartzen gintuzten. Gainera, kontuan hartu behar da portuetara hurbiltze-*



Juan Iriberrri bere bulegoan; behean, berak Antartidan hartutako irudi bi

ko ezintasunak egoera larriagotzen zuela”. Oztopoak oztopo Juan Iriberriri espedizio honi buruz geratu zaion oroipena ederra da. Oso bidaia gogorra izan bazen ere, izotzen formen edertasunek, itsasoaren koloreek, hotzaren sentsazio garbiak eta animaliek erabat harrapatuta utzi dute bera. *“20.000*

«20.000 pinguino bikoteren artean egotea sekulako sentsazioa da»

pinguino bikoteren artean egotea sentsazio ahaztezina da. Hango sunda, ikusten dena eta entzuten dena oso zaila da azaltzen; bizi egin behar da”. Juanek geurera ekarri digun Antartidari buruzko irudi xarmangarri hori galtzeaz dago. Gure gizarteak hartu duen abiadura azkar eta bortitzak gure ekosistema hondatzeko arriskuan jartzen du. ^m



Taldearen aurtengo argazki ofiziala

Leioa emakumeen futbol taldea

Athleticen kirol egituraren integratuko da

Athleticek eta Leioako Emakumezkoen Futbol Taldeak lankidetzak akordioa sinatu dute. Akordio honen arabera, leioztarrak Athletic-en kirol egituraren integratuko dira eta, beste talde eskumendekoe bezala, kamiseta zurigorria jantziko dute. Partidu ofizialak Lezaman jokatu dituzte eta entrenamenduak Leioan izango dira. Akordio honen barruan, Athletic-eko lehenengo taldeak partidu bat jokatu du uda honetan Sarriengan. Leioa EFT 2000ko maiatzean sortu zen

eta gaur egun 36 jokalariditu. Leioako udalari esker, taldeak inguruko futbol eskola bakarra dauka. Aurtun leioztarrek denboraldi ederra egin dute; ez dute partidurik galdu urte osoan eta joan den ekainaren 29an finaleko bigarren partidua 7-0 irabazi zioten Rayco Futbol talde kanariarrari (joaneko partiduan huts eta huts bukatu zuten). Emaizta honekin, leioztarrek liga irabazi dute eta datorren urtean Estatuko Ohorezko Mailan jokatzeko sailkatu dira. ^m

SATISTEGI

CAFÉ

ADITUAK GARA

PINTXO ETA

BOKATA

BEROETAN!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA

[leioa]

NI GAZTEA

NINTZENEAN...

Leioako udalak *Ni gazte nintzenean* izenburupean III. Narrazio Lehiaketa antolatu du. Deialdia irekia da eta nahi duten guztiek parte har dezakete, euskaraz, zein erdaraz. Lanak aurkezteko epea datorren irailaren 13an bukatuko da eta sari banaketa urriaren 31n izango da Artatza Jauregian. Sariak hauek izango dira; 180 euro, garaikurra eta diploma euskaraz eta gaztelaniazko irabazleentzat. Gainera, abenduan, udalak saritu eta hautatutako lanak erakutsi eta argitaratuko ditu. Lanak postaz bidali edo eskura eman daitezke Leioako Kultur Aretoan (Sabino Arana 67 B) edo Pinueta Kultur Aretoan (Lapurdi, 3).
Argibideak: 94 480 46 60

Frankismo garaiko ikasle bat

KURKUDI

LIBURU DENA

Euskarazko

irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA

T: 944 913 402

14 UK

UK 15

Mugarik gabeko patinatzailea

Orain hiru urte **patinajean** murgildu zen **Ivan Ureta** eta egun **lasterketa profesionaletan** buru-belarri sartuta dago. Geldirik egoten ez dakiela argi utzi digu leioztar honek

Hamaika kirol praktikatu ondoren, Ivan Ureta hogeita sei urterekin ohartu da patinajearen xarmaz. Leioan eskaladari bultzada izugarria eman dio eta egun etorkizun handiko patinatzailea bilakatu da.

—Nola lortzen duzu urtebetean maila altuan patinatzea?

—Orain dela ia hiru urte liluratu ninduen patinajeak, baina beti ere urrun ikusten nuen, inoiz ez modu tinko batean praktikatzeko. Oso erakargarria, baina zaila. Kirol portuan hasi nintzen irristaketan lagun batzuekin eta gustatzen zaidan oro mugaraino eramaten dut; beraz, berehala harrapatu ninduen. Pixkanaka material hobea erosten eta txapelketetan parte hartzen hasi nintzen, beti ere bakarka. Gasteizko Jostaldi Klubak fitxatu ninduen; hastapenak etsigarriak izan baziren ere nik jo eta ke ekin nion.

—Jendea txundituta utzi duzu, zeu ere bai?

—Familiak beste erokeria bat zela uste zuen, baina orain pozik daude. Nirekin patinatzen dutenak harrituta gelditu ziren bi urtean maila hau lortzeagatik, normalean denbora behar da batez ere teknika ikasteko. Ni ez ninduen ustekabea harrapatu, egiten dudan oro gogo guztiekin egiten dudalako.

—Iruñera txapelketetan parte hartzera zoaz, Gasteizko klub batekin zabitza, Bizkaian ez al dago girorik?

—Azpiegitura kontua da. Bi hiri horietan sekulako pistak, kiroldegia eta bestelako guneak daude; hemen, aldiz, ez dago fundamentuzko baldintzarik. Badirudi Bizkaian dena Athletic dela, dena futbola. Pena



Ivan Uretak Getxoko Kirol Portuan egiten ditu entrenamenduak

da kanpora joan beharra. Hemen bakarrik ibiltzen naiz, egunero bi orduz entrenatzen naiz. Batzuetan bakarrik sentitzen da bat; kide bat faltan botatzen da.

—Agian hemen skaterra patinajearentzat abantaila izan daiteke. Harrobi bezala hartu al daiteke?

«Helsinki eta Estokolmo patinatuaz elkartu nahi ditut, Botniako Golfoa zeharkatuz»

—Baliteke, baina oraindik ezin dugu jakin. Alde batetik, ez dago beharrezkoa den azpiegitura hori, bertan irristatzeko zaletasuna duten guztiak bilduko lituzkeena. Bestetik, skaterra batez ere aisialdira eta lagunartera mugatzen da.

—Eta etorkizunari begira zein erronka dituzu?

—Frantziara joango naiz 24 orduko txapelketa batera; gainera, ni taldeko kapitaina izango naiz. Aurten egin nahi ditudan egitasmoen artean, interesgarriena Botniako Golkoa patinatuaz zeharkatzea da. Ez dakit urte honetan edo hurrengoan egingo dudan, baina Helsinki eta Estokolmo patinatzen elkartu nahiko nituzke ahalik eta etapa gutxien eginez. Patinajeak ez du bizitzeko beste diru ematen, eta hobby bezala hartu beharra dago. Gainera, konturatu naiz txapelketetako giroan lehia zikina sortzen dela, giroa gaiztotzen da. Nik neuk nahiago dut erronka pertsonalak finkatzea. Horrela jokatzeko askoz ere asegarriagoa da niretzat. Ea dena ondo ateratzen zaidan. m

San Juanak 2002

giro alaian eman zaio ongiatorria udari



Joan zaizkigu San Juanak. Ekainaren 20tik 24ra, Leioa jaiekin jantzi zen eta asko eta asko izan ziren gurekin jaiak ospatzera kanpotik etorri ziren lagunak. Herriko kaleetan, tabernetan, zein jarri ziren txosnetan giro ederra bizi izan zen egunez zein gauez. Orrialde honetako irudiak jaiak hasi zireneko egunean, txupina-zoa bota eta gero hartu genituen. Aurtengoak amaitu dira, baina lasai, gero eta gutxiago falta da-eta datorren urteko San Juanetarako. Birtartean, uda ona pasa! m



LAIAK Taberna

Tlf. 94.6760328

Bentatxu, 2
48600 - Sopela

moda gaztea opariak

IRATI

Torreñe 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Izaskun Urkijo > judoka

“Nire ametsa 2005eko munduko txapelketan parte hartzea da”

Izaskunek 13 urte ditu eta zazpi bat daramatza judoa egiten. Sei urteko kakanarrua zen bere amak Jado kaleko *Erandio Judo Club*-era lagundu zuenean. Urte hauetan guztietan hainbat koloretako gerrikoak jantzi ditu eta orain marroia janzten du. Erandioztar hau, eskolarteko lehiaketetan 4 urtez txapelduna izan eta gero, Bizkaia eta Euskadiko Autonomi Erkidegoko txapelduna izatera ailegatu da 2001 eta 2002. urteetan. Maiatzean estatuko txapelketan egon zen eta bigarren postua eskuratu zuen.



Argazkian, Izaskun Urkijo

—Gaztea zara, noiz hasi zinen eta zergatik aukeratu zenuen judoa?
—1994an hasi nintzen. Amak kirola egin behar nuela esaten zidan eta berak eraman ninduen klubera. Orduan ez nuen batere argi judoa nire gustukoa izango zen, baina denborarekin, gerriko-kolorea aldatzen nuen neurrian erosoagoa sentitu naiz. Gerriko marroia lortzeko lan gogorra egin behar izan nuen.
—Zergatik hasi zinen lehiaketetan?
—Hasieran irakasleak animatu ninduen. Geroago gustura sentitu eta pixkanaka-pixkanaka lehiaketa munduan murgilduz joan naiz. Nire lehengo pausoak eskolarteko lehiaketetan eman nituen eta gero herrialde eta Erkidego mailan aritu naiz. Iaz lehenengo aldiz joan nintzen estatuko txapelketara eta aurten itzuli naiz.
—Judoa, zure bizitzaren beste aktibitateekin bateratzea zaila suertatzen zaizu?
—Oraindik behintzat ez. Ikasketak nahiko ondo daramatzat eta lagun taldean oso on-

do moldatzen gara. Nire lagunei ere judoa gustatzen zaie eta lehiaketetan laguntzen naute. Aurten Bizkaiko txapelketan pankarta eta guzti agertu ziren kiroldegian animoak ematen eta ez zen alferrik izan. Txapelduna izan nintzen!
—Zer eskaintzen dizu kirol honek?
—Ondo nago judoa egiten, gustatzen zait eta kitto. Horrez gain, lagunak egiteko eta jendea ezagutzeko aukera ere eskaini dit.

“Batzuk pentsatuko dute kirol hau bortitza dela, baina ez da horrela. Giro ederra dago”

Lehenengo, klubean bertan, gero txapelketetan parte hartzen duen jendea eta bere inguruan mugitzen dena. Gure arteko harremanak oso zuzenak dira. Nik haurrak eta jendea animatuko nituzke judoa

egiteko. Batzuek pentsatuko dute kirol bortitza dela eta beldur izango dira, baina ez da horrela. Nik giro ederra eta behar izan dudana laguntza guztia aurkitu dut mundu honetan.
—Etorkizuna duzu aurretik, zer espero duzu?
—Nire ametsa 16 urterekin 2005eko munduko txapelketara joatea da baina oso zaila izando da ametsa betetzea. Hasteko, estatuko txapelketetan lehenengo postuetan sailkatu behar izango dut berriro ere eta gero ikusiko dugu. Gogorik ez da falta eta jo eta ke arituko naiz urte horietan. Izan ere, nire lehenengo urratsak emanak ditut eta, datorren astean bertan, Madrid eta Granadara joango naiz konzentrazio batera. Estatuko txapelketako finalean egon ginen judoka biok elkarrekin egongo gara entrenatzen eta, jakina, harremana sendotzen. m

Erandioko erraldoiak

Euren burua aurkezteko **gutun** bat bidali digute erraldoiek. Herriko momentu **historikoak** irudikatzen dituzte. Euren asmoa jaiak suspertzea eta alaitzea da

Erandioko Erraldoien Konpartsako kideak gaituzu. 1985 eta 1992. urteen artean jaio ginen *Gautxoriak* taldearen eskutik. Lau erraldoi, lau kiliki, zaldiko bi eta hainbat dantzari, eramale eta gaitari gara konpartsa osatzen dugunak. Jaiak suspertu, indartu eta elementu fisikoetan errotzeko sortuak gara.
“La Ría”, Zumalakarregi, Peru eta Mari gara erraldoiak eta Erandioko zenbait auzoek eta herriak bizi izan dituen momentu historiko ezberdinak irudikatzen ditugu. Honela, Erandio **Behekoa**, XIX. mendean itsadarraren ertzean jaioa “La Ría”k irudikatzen du; **Lutxana**, inportantzi handiko lekua karlistadetan, **Zumalakarregik** ordezkatzen du. Azkenik, **betiko Erandio**, **antzinakoa** (Goikoa, Goierri...), **Erdi Aroko Martiartuko** Jaun-Andereek irudikatzen dute, **Peru** eta **Mari** herritarren hitzetan,

Andra Mari eliza atarian betiko loa egiten dutenak. **Zaldikook** garai horiek ere erakarrri nahi ditugu, **banderizoen** garaia alegia, Asua eta Martiartu dorretxeek ordezkatuta. **Kilikiok**, konpartsako gaiztook, arratoiak gara, Erandiok nozitu duen kutsadura mota guztiak agertarazteko asmoz.
Hamazazpi urte hauetan hainbat plaza eta kale zapaltzeko aukera izan dugu! Hainbat jai eta giro ezberdin ezagutu! Iruñean, Olaztin, Arrasaten, Bilbon, Arrigorriagan... Amaitezina litzateke irteera, jai eta ospakizun guztiak aipatzea. Beste baterako geratuko da; bai eta nola sortu ginen, erandiotarron esku, eta lan eta ilusioetatik... Orain aurtengo jaiak prestatzera joan behar dugu. Gurekin egon nahi baduzu etor zaitez Erandioko jaietara, bertan egongo gara eta. Ordura arte! m

Konpartsako kideak festarako prest



iritzia

Jokin Malats-Etxebarria

Auzolanik gabe jairik ez

Euskaldun egiten gaituena euskara dela egia biribila da. Baina hori da euskaldunon ezaugarri berez bakarra? Hizkuntza gurea beste inon ez dagoela frogatuta badago ere badaude benetan gureak diren beste berezitasun batzuk.
Euskaldunok aspaldidanik zerbait ondo ikasi baldin badugu, hori kolektibitatearen indarraren erabateko garrantzia da. Ez dakigu bakarrik egoten. Eta, gainera, ez dugu bakarrik egon nahi. Ez dakigu. Gustuko dugu elkarrekin jardutea, batzuetan helburuari baino lagun artean egoteari, elkarlanari berari ere erabateko lehentasuna emoten diogularik. Elkarrekin jan, edan, abestu, lan egin, herria eraiki, elkarrekin dantatu. Elkarlana. Auzolana. Gure kolektibitate-sen honengatik ez balitz gure herria desagertuko zen? Apika.
Udan dugu honen froga nabarienetarik bat. Asko bidaiatuta ere gatx egingo da gure herrian beste jai topatzea. Edozein auzotan ere bertokoak auzolanera deliberatuta, komunitatea ulertzeko era berezi batek bultzatuta, betidanik egon den eta betiko egon dadin nahi duten ospakizuna prestatzen hasiak dira. Auzolana, hartu-emana, elkartasuna.
Erandio ez da salbuespena. Ez horixe. Gure udalerriaren geografia jaiz zipriztinduta dago. Han-hemenka gure auzotarrok kulturaren protagonista bihurtzen dira. Datorrena datorrela eta batzuetan haiek ere azaltzen ez dakiten arazoengatik denbora eta izerdia emoten hasiko dira. Nork jakin zergatik. Dena da beharrezkoa. Denak dira funtsezkoak.
Uda badator eta jai giroan murgilduko gara. Udaberrian ere gorpuzat prestatzeko aukerak izan ditugu. San Isidro eta Korpusa Erandio Landan, San Bernabe Fanon, San Antonio Martiartu, San Pedro Kukularran eta San Trifon Arriagan entrenamendu edo zizkamizka gisa joan dira. Uztaila eta abuztua ere alai datoz. m

Nishma

Erandioko Sahararen aldeko **elkarte berria**



Eskoletako haur bi saharauiz mozorroturik

Galdera hauek luzatu genizkien Nishma elkarteko lagunei.

—Zelan sortu da taldea?
—Erandioko udalak, Saharako Mabesh herriarekin dituen anaitasun harremanak sendotu nahian, ikastetxe eta emakume taldeko emakume bana zein andrazko zinegotziak Emakume Sahararren IV. Kongresuan parte hartzera gonbidatu zituen 2002ko urtarrilean. Emakumeoi oso esperientzia baikorra iruditu zitzaigun bidaia, eta itzuli ondoren Saharako umeei udaran abegia eskainiko zien talde bat sortzea bururatu zitzaigun. Udala horretarako dirua ipintzeko prest agertu zen eta lanean jarri ginen.
—**Zeintzuk izan dira zuen lehenengo urratsak?**
—Uda gainean geneukan eta abegi kanpaina antolatu beharra zegoen. Bitartean herriko eskoletan Saharako herriaren egoera ezagutarazteko hainbat ekimen burutu dugu: erakusketak, mozorroak, hitzaldiak...
—**Eta emaitzak?**
—7 familiak bi hilabetez umeak hartzea lortu dugu, eta pixkanaka lan talde hau sendotu gura dugu. Beraz, inor lan honetan interesaturik balego gurekin harremanetan jartzeko eskatzen diogu.
—**Saharako haurrei harrera eskaintzeaz gain, zer egingo duzue?**
—Jaietan egun bat kausa honi eskaini nahi diogu, harrera jaialdi bat eskaini abegi familiei zein haurrei, artisautza tailerrak, jaima, henna tatuajeak... m



Txirrindulariaren arriskuak

Erandioko Txirrindulari Elkarteak errepideetako **segurtasuna** hobetzeko proiektu bat aurkeztuko dio laster Bizkaiko Foru Aldundiari

Txirrindularien segurtasuna bermatu nahian, Erandioko Txirrindulari Elkarteak 1999an abian jarritako kanpainari eutsiko dio. “Bizirik errespetat gaitzazu” leloa ezagutarazi du azken bi urteotan Bizkaian barrena, baina oraindik ere bizikletaren segurtasunaren inguruko hutsune asko dagoelakotan dago talde hau.

Ikuspegi honetatik, txosten bat egina du eta Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztuko dio bi helbururekin: alde batetik, Erandioko Txirrindulari Elkarteak berriz bultzatu nahi duen prebentzio kanpainarako diru laguntzarik eman dezan Aldundiak, eta bestalde, errepideetako segurtasuna hobetzeko beharreko neurriak, ahal den heinean, betearazi ditzan.

Erandioko Txirrindulari Elkarteko bozeramaile Oskar Morenok azaldu duenez, “*arazo honi aurre egiteko heziketa da garrantzitsuena*”. Beraz, eskoletan egin litekeen lanaz aparte, urtero bi publizitate kanpaina egitea egokitzen jotzen du. Horiek

otsailean (denboraldiaren hasieran) eta ekainean (uda hastearekin batera) egin litezke, telebista, irrati, prentsa eta triptikoen bitartez. Bestalde, Erandioko elkarte honek, gorago aipaturiko txostenean, bide-seinaleak hobetzeko eskatuko dio Bizkaiko Aldundiari, bereziki instituzio honek iragan hamarkadan deituriko txirrindularien ibilbiderako errepideetan. Bide horietan marra gorri bat pintatuko litzateke, eta bide-seinaleak beraiek hobetuko lirateke, betiere gogoratzeko autoek txirrindulariak aurreratzean gutxienez 1,5 metroko tartea gorde behar dela. Azkenik, jarraipeneko komisioa egitea proposatuko du kanpainaren helburuak lortzen ote diren aztertzeke.

Arlo honetan, Bizkaiko Federazioak betetzen duen paperari lotsagarri deritzo Oskar Morenok. “*Ez du ezer egiten, ezta geuk zertxobait proposatu eta egin dugunetan ere. Hori bai, txirrindulari ospetsurik hiltzen denean istripu batengatik, Federazioak ahaleginak eta bi egiten ditu argazkian agertzeko*”. m

Txelo Martínez > Kukularra Auzo Elkartearen bozeramalea

“Gure aldarrikapen nagusia parke bat eta kulturgunea sortzea da”

Frankismoaren azken urteetan Erandio Auzo Elkarte bizi-bizia zen, baina geroago krisi larrian murgildu eta desagertu zen. Gaur egun Erandion hainbat auzo elkarte lanean dirau: Arriostarrak, Fanokoa... Krisia eta gero sortu zen lehenengo elkarte Kukularrakoa da. Txelo Martínez Kukularrako Auzo Elkartearen bozeramale gisa aritu da gurekin.

—**Zergatik sortu zen Auzo Elkarte?**
—Arrazoi asko dago auzo elkarte bat sortzeko, giza harremanak suspertzea, auzolana bultzatzea, auzoa bizirik mantentzea... Gure kasuan auzoak zituen arazoei aurre egiteko batez ere. Kukularra *Tubos Reunidos* enpresaren babespean sortu zen. Enpresa honek oinarritzko azpiegiturak mantentzen zituen, eskola, eliza, haur-parkea... Baina enpresa Amurrion joan zenean auzoan zuen lurra saldu eta azpiegitura horiek desagertu egin ziren. Orduan Altzaga ikastola etorri zen.
—**Ikastola eta Kukularra txanpon beraren aldeak dira, ezta?**
—Onerako eta txarrerako, horrela da. Sarri askotan ikastolak auzoaren hutsuneak eta arazoak estaltzen ditu. Erandioztar asko eta udalarentzat batez ere, Kukularra ikastola besterik ez da. Auzotarrak garrantzi txikia-gokoak garelako ematen du. Ikastolarekin batera Kukularran 77 familia bizi gara eta auzolanean egiteko prest gara. Jaiak antolatzear gain, txangoak, euskarazko eskolak eta kultura jarduerak burutu nahi ditugu.
—**Eta egoera horri aurre egin nahi diozue?**
—Bai, 1996tik aurrera udal arduradun guttiakin bildu gara auzoak dituen hutsuneak konpondu nahian, baina ez dugu gauza




Argazkian, Txelo Martínez

handirik lortu. Udalak ez digu esaten ezetz, baina aurrera ere ez du egiten.
—**Zer eskatzen duzue ba?**
—Gure aldarrikapen nagusiak parke bat eta kulturgun moduan erabiliko genukeen toki bat sortzea dira. Elkartearen bilgunea zein kultur jarduerak antolatzeko balioko lukeen toki bat. Horrekin batera, Errontegi zubitik datorren itzelezko zaratari aurre egi-

“Ikastolarekin batera, 77 familia bizi gara Kukularran eta auzolanean lan egiteko prest gaude”

teko neurriak hartzea eta Ategorritik auzora datorren bidea konpontzeko ere eskatzen dugu. Baina ez ditugu aldarrikapen soilak egiten, alternatibak ere eskaintzen ditugu: parkea egiteko lekua zehaztu, lokala non egon litekeen esan, zarata saihesteko pantai-

lak proposatu, eta abar. Hutsunea konponbidea gauzatu behar denean agertzen da: ez atzera, ez aurrera eta arazoei hortxe darraite.
—**Eta, orduan, zer egingo duzue?**
—Une honetan udaleko hirigintza arduradunarekin ere harremanetan gaude eta erantzun baten zain gaude, baina ez gara luzaroan egongo. Udal talde politiko guttiengana joko dugu eta mozioa edo beste formularen baten bitartez Udal Osoko Batzarrari eskatuko diogu erantzuna. m



Jaiak 02 parrandarako ordua

Santa Ana jaiak uztailaren 25etik 27ra eta **Santo Domingo** jaiak abuztuaren 2tik 5era izango dira. Abuztuaren 11n **makailo eguna** ospatuko da, Gure Txoko “Begutxo”ren eskutik

Herrian, urtero legez, **Santa Ana** eta **Santo Domingo** jaiak ospatuko ditugu hilaren bukaeran eta abuztuaren hasieran, hurrenez hurren. Jai nagusi hauekin norbaitek nahiko izango ez balu abuztuaren 11n egingo den makailo egunean ere ondo pasatzeko aukera izango du.

Hilaren 25ean goizeko 10:00etan botako duten txupinazoak Santa Anako jaiak hasiera emango die. Eguen horretatik zapatuta arte, hainbat ekintzarekin gozatu ahal izango dute herritarrek eta baita kanpotik etorri gura duten guztiek ere. Besteak beste, zaldi probak, txirrindulari lasterketak, meza santua Santa Ana egunean, edota haurrei begira antolatutako indiar herrixka, tailerrak, parkea... bezalakoak egongo dira. Laguntaldeen ere eurentzat bereziki prestatutako jarduerak izango dituzte: egunean jaitsiera eta aurkezpena eta zapatuan herri kirolak. Gazteek eta ez hain gazteek ere badute eskaintza zabala gauetarako; egunean eta zapatuan berbena egongo da *Kresala* eta *Sailean* taldeekin; eta barikuan, berriz, *Buitraker* eta Bermeoko *Ost* taldeen kontzertua eskainiko dute.

Santo Domingo jaietan ere ekitaldi ugari Herriko jai nagusiak abuztuaren 2an hasiko dira. Egun horretan bertan, futbito txapelketako finalurrekoak jokatu dira, laguntaldeen igoera egingo dute eta haurrak hain harrituta uzten dituen *Txan* magoak ikusizuna eskainiko du. Gaueko hamaiketan, berriz, dantzatzeko ordua helduko da *Kinu* berbena taldearen musikaren laguntzaz.



Jaietan besteak beste, *Buitraker* eta *Ost* taldeen joko dute

Zapatuan, kirola izango da nagusi; izan ere, goizeko hamabietan mus txapelketa egongo da (askorentzat musa kirola da) eta arratsaldean pilota partiduak eta Sub-23 mailakoentzat den bigarren Ricardo Otxoa saria jokatu dira. Gauean, berriz, *Habeas Corpus* madrildarren eta *Parasma* euskaldunen kontzertua izango da.

«**Abuztuaren 3ko zapatuan Ricardo Otxoa saria korrituko dute txirrindulariek**»

Biharamunean ere, hainbat ekitaldi izango dira, bai ikusteko zein eurretan parte hartzeko; futbito finala, pailazoak, idi probak eta suzirriak, domekan; eta xake txapelketa, herri kirolak edota antzerkia, ilenean.

Iluntze aldera, jaiak amaiera emango dien erromerian ibiltzeko aukera izango dugu.

Makailo eguna

Eta jaiak bukatu ostean, Gure Txoko “Begutxo”k duela 46 urtetik hona urtero antolatzen duen makailo egunean parte hartzeko aukera izango dugu. Jai giroa goizeko hamarretan hasiko da txistularien laguntzaz. Ordu bata eta ordu biak artean kazolak aurkeztuko dituzte parte hartzaileek eta bostak aldera, sari banaketa izango da. Ondoren, erromeria egongo da eta, beraz, festa ez da horretan amaituko. Iaz, 60 bat kazola aurkeztu zituzten etorri ziren lagun-taldeen eta aurten ere beste horrenbeste aurkeztea espero dute antolatzaileek.

Hala bedi! m

Encarni Andrés > Ikasleen gurasoen elkarteko presidentea

“Gure **helburu** nagusia, haurrentzako eskolaz kanpoko **jarduerak** bultzatzea da, beti ere **giro** euskaldunean”



Argazkian, Encarni Andrés

Ikasleen guraso elkarte 1975. urtean sortu zuten guraso batzuek eta ordutik hona lanean ibili dira herriko eskolako haurren garapen on baten alde. Elkarrekin helburu nagusi bat dauka; hiru eta hamabi urte bitarteko umeentzako eskolaz kanpoko ekintzak bultzatzea. Besteak beste, psikomotrizitatea lantzeko txikiritmoak, plastika-adierazpena, igeriketa, gimnasia erritmikoa, dantza modernoa, ingelesa edota informatika bezalako jarduerak eskaintzen ditu. Azken hau gurasoentzat ere zuzenduta dago. Eta hauek guztiak euskaraz egiten dituzte, gure hizkuntza ere bultzatzatu nahi dutelako.

Aldi berean, eta herriko beste taldeen egiten duten moduan, elkarte honek jaietan eta kultur astean parte hartzen du. Izan ere, kultur astean, oraintsu, haurrek egindako pinturen erakusketa eta karate eta dantza emanaldi bat ikusteko aukera izan dugu. Santo Domingo jaietarako, berriz, xake txapelketa antolatuko dute.

Zuzendaritza osatzen duten kideak

hilabetero biltzen dira, egon daitezkeen berrien edota sortutako arazoengatik inguruan jarduteko. Urtean hirutan, elkarte osatzen duten guraso guztiei zuzendutako bilerak antolatzen dituzte. Hala ere, eta nahiz eta egun elkarte laurogeita bat gurasok osatzen duten, bileretara oso gutxi hurbiltzen dira.

Elkarrekin duen beste helburuetako bat, informazioarena da. Encarniren esanetan, “*Berango* handi egin den herria da, jende gaztea etorri da eta sano garrantzitsua da herriko eskolak zer abantaila dituen eza-gutaraztea; izan ere, eskola oso inguru lasaian dago, parke batekin eta berdegune ugari inguratuta...”.

Orain, udan, elkarteak etenaldi txiki bat egiten badu ere, Encarnik lanean jarraitzen du hurrengo ikasturterako eginbeharrak prestatzen. Eta gustura, gainera; bada, Encarni oso pozik dago azken urteotan herriko eskola izaten ari den gorakarekin; haur hezkuntzako taldeak urtero gehiago dira. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Txakolina eman eta zabal ezazu

Berangon uste baino txakolin gehiago egiten da, urtero **4.000 litrotik gora** egiten dira herriko mahastien fruituekin. Txakolingileak, guztira hamahiru, euren elkarte osatu dute herrian

Aurreko hilaren 9an, Berangoko kultur jardunaldiak zirela eta, bigarren txakolin eguna antolatzen zuen herriko txakolin elkarteak. Bertan bildu zen jendetza eta ekintzak izan zuen arrakasta dela eta, elkarte horretako arduraduna den Iñaki Arestirekin berba egin dugu, euren urteroko lanaren berri izateko asmoz.

Egun, taberna gehienetan ikusten ditugu “txakolina badago” erako errotoak. Bada, azkenaldi honetan, edari hau izaten ari den gorakada nabarmena da. Txakolinaren gorakada horren zergatia argi dago gure herrian, duela urte batzuetatik hona, bertoko zenbait txakolingilek, elkarlana bultzatuz, ardura hori hartu dutelako, alegia.

Gaur egun, hamahiru lagun dira elkarte osatzen dutenak (Joserra Aretxaga, Felix Mardaras, Iñaki Arrieta, Sustatxa, “Iturralde”, Iñaki Kardas, Juan Uranga, “Sagar-etxe”, Tomas Markaida, Andoni Urrutia, Saitua “Sustatxa-azpi”, Lekanda “Landazabale”, Esteban Iratxagorria), eta esan bezala, Iñaki Aresti da elkartearen arduraduna. Hala ere, Berangon badaude txakolina egiten duen jende gehiago eta Iñakiren erronka horiek ere elkartera erakartzea da orain, *“datorren urterako beste hiru edo lau txakolingile elkarte espero dugu, elkarte bat sortzeak abantaila ugari dauzka eta; izan ere, guztiok kontaktuan egonez gero denok besteengandik ikastea aukera daukagu, eta horrela txakolin gero eta hobea egin ahal izango dugu”*.

Kalitateko txakolina egiteko beharrez-



Ezkerretik eskuinera, Aure Olarte, Joserra Aretxaga eta Iñaki Aresti, Olatxiteko mahastian

koa den eguneroko lanaz ohartzea ez da bat ere erraza eta euren nahia zer egiten duten herriak ezagutzea denez, duela bi urtetik hona, Berangoko kultur astearren ekitaldien barruan, txakolina eguna antolatzen dute; *“ekintza honen bitartez, gure txakolina herriari erakutsi nahi diogu”*. Eta horrela gertatu da aurten ere, pilotalekura hurbildu zirenek herriko zenbait txakolina dastatzeko aukera izan baitzuten.

«Elkartearen helburu nagusia ardoaren kalitate maila hobetzea da»

Berango, leku paregabean txakolina egiteko Euskal Herrian sano ezagunak dira Zarautz eta Bakioko txakolina, Iñakiren aburuz, oso kalitate handikoak dira, mahastiak leku ezin hobean baitaude. *“Berango ere, leku paregabean dago, itsasoa bertan*

dagoelako eta horregatik hartu dugu txakolina ezagutarazteko ardura, uste baitugu hemengoak onenen parean egon daitekeela”.

Azkenik, gure herriko txakolingileek 4.000 bat litro txakolin egiten dute urtean. Baina euren helburua ez da saltzea, zaletasunagatik baino ez dute egiten. Eta beraz, euren borondatearekin eta erakundeek eman dezaketen laguntzarekin, bertoko txakolina maila gorenera eramatea dute xede bakartzat. ^m



ALGORTA

ALGORTA

dj.ak / [antzerkia](#) / [erakusketak](#)

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net

Inportaziozko
zerbeziak
onak

Terraza
zabala

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

basartena

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T.: 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T.: 94 491 13 94

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

basur-
to
algorta

telletxe 15, algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44

Euskal Herriko

Bestelako gaiak
Drogak
Politika
Bidaia
Osasuna
Sexualitatea
Munduko literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 431 94 06
79

amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 Tfn.: 94 431 94 06
48990 ALGORTA

uk etxean **hilabetero** jaso nahi baduzu

deitu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztia 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



[albuma]

Pertsianak

Greba, borondatezko lanuzte kolekti-boa da, eskariren bat lortzeko egiten dena. Jeneralean lan baldintza hobeak edota gertaera batengatik gaitzespena adierazteko egiten da. Pertsiana itxiak greben adierazle ikusgarrienak izaten dira. Irudiok 19ko greba egunean Al-gortan hartu genituen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

Egunero gure etxeetako egongelatan sartzen den mezularia da Maddalen Iriarte. Gehienetan berri txarrak dakartza, mundua zoritxarrez, horrelakoa delako. Hala ere, berari ez zaio sekulan aurpegiko irribarrea ezabatzen. Zenbaezinak dira aurkeztu dituen euskarazko albistegiak. Lana bukatu ostean, ETBko bisita gelan hartu gintuen.

Maddalen Iriarte

etengabe berriaren harian

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Zelan eta zergatik hasi zinen telebistan?
—Baneramatzan bost urte Donostiako Herri Irratian lanean eta ETBrako oposaketak atera zirenean aldatzeko garaia zela pentsatu nuen. Bost urte leku berean urte asko zirela iruditzen zitzaidan garai hartan. Gaur egun, denborari buruz daukadan kontzeptua nahikoa aldatu dela uste dut.

—Gogoratzen dituzu kazetaritzan eman zenituen lehenengo urratsak?

—Orain dela asko izan zen hori. Nire oposaketak albisteetarako izan ziren eta hone-tan ibili naiz hasiera hasieratik. Azaroaren batean hasi nintzen ETBn lanean eta handik hamabost egunera hauteskundeak egin

behar izan ziren. Kanpainako elkarrizketekin hasi nintzen eta geroztik ez ditut albistegiak utzi; milaka *Gaur Egun* aurkeztu ditut, orain arte, egin ditudan debate programa eta elkarrizketak ere, denak albistegien barrukoak izan dira.

—Eta ez zaizu nekagarria egiten horrenbeste urtetan egunero berriak, gehienak txarrak, eman behar izatea?

—Momentu zehatz batzuetan gogorra egiten da, bai; gainera, beti erlojuren kontra gabilta, aktualitatea azken minutuan jarraitzen... Baina uste dut gezurra dela; hau da, nire burua gezurra esaten deskubritzen dut hau esaten dudanean. Azken

finean nire lana gustatzen zait eta gauza bat asko gustatzen baldin bazaizu gustura egiten da beti.

—Espero zenuena da kazetaritza?

—Ez dakit zer espero nuen edo kazetaritza espero nuena den ala ez, baina gustatzen zaidan lana da. Nik hasieran ez nuen amets handirik eta, beraz, geroago ez dut dezepziorik hartu.

—Zuk urteak eman dituzu hauteskunde kanpainak aurkezten. Azkenekoetan, egin zen kanpaina mediatikoa ikaragarria izan zen. Zelan bizi izan zenuten presio hori ETBko langileek?

Maddalen Iriartek eguerdiro aurkezten du *Gaur Egun* albistegia ETB1en >



—Kanpainen zehar, ETBk Espainiako medioek baino indar gutxiago zeukala zirudien, baina gero hauteskundeen emaitzek erakutsi dute komunikabide askok hartu izan dituzten jarrerak herritarrentzat ez direla egokienak izan. Azken batean herritarrek ez diote jaramonik egin komunikabide indartsuenek luzaroan (ez hauteskunde kanpainen bakarrik) Euskal Herriaz eta hemen bizi dugun errealitateaz eta egoeraz esandakoari. Azkenean herritarrek dute beti arrazoia eta Euskal Herriaren kasuan demostratu da telebista honek daukan indarra daukala, baina ez dituela gauzak hain gaizki egin ikusleen ustez.

—Baina nahi eta nahi ez, ETB ika-mikaren erdian egon zen eta zeuek presio handia jaso zenuen. Presio horrek, albistegiak ematerakoan, ez al zintuzten baldintzatzen?

—Presio bat daukazun bitartean beti zaude baldintzatua lan egiterakoan. Hori ukaezina da. Zugandik hasita, bai zauden komunikabideagatik, bai inguruagatik eta baita beste hamaika motibogatik ere. Nik aspalditik esaten dut ahaztuta daukadala kazetarien objektibotasunaren ametsa. Hartu beharko genukeen bidea da, baina bidearen amaierara iristeko ahalegina egiten dugun arren, inoiz ez gara heltzen. Objektibitatea utopia

LABUR-LABUR

Izena: Maddalen Iriarte.

Jaitorria: Donostia.

Hautzaroko irudi bat: Hondartza

Zaletasun ezezagunik:
“Asko gustatzen zait korrika egitea”.

Abestirik gustukoena:
“Musika mota gehienak ditut gustuko. Opera izugarri gustatzen zait; Mozart...”

Liburu bat: “Irakurri dudan azkena Sarrionandiaren *Lagun izoztua* izan da eta oso liburu ona iruditut zait”.

Film bat aukeratzekotan... “Ez naiz oso mitomanoa eta ezin izango nuke esan txundituta utzi nauen bakar bat”.

hutsa da. Ai, balego!

—Mundua zelan dagoen ikusita, batzuetan pixka bat ahulgarria izan behar da berriak ematea. Zein da orain arte eman duzun berririk txarrena?

—Txarrak, zoritxarrez, asko eta egunero ematen ditut. Ailegatzen zaizkigun gehienak txarrak dira eta.

—Eta onena?

—Onenen artean, niretzat oso pozgarria

“Niretzat oso pozgarria izan zen ETAre su etena iragartzea, neuk eman nuen albiste hori”

izan zen ETAre su etena iragartzea, neuk eman nuelako albiste hori. Ez nuen eman nik su etena hautsi zen albiste, baina penagarria izan zela uste dut. Gure gizarte honetan su etenak ilusio asko piztu zituen, eta kontrako berriak orde, ilusio asko zapuztu zituen.

—Eman nahiko zenukeen berria honekin lotutakoa izango litzateke; ETAre behinbetiko su etena?

—Beno, gustatuko litzaidake; batez ere gustatuko litzaidake ematea ETAk betiko su etena iragarri duela, Euskal Herrian baldintzak badaudelako betiko su etena izateko.

—Ez al duzu beste saio mota bat aurkezte-

“Exijentea naiz, lehenengo nire buruarekin eta gero nirekin lan egin behar dutenekin”

ko gogorik, esaterako, arratsaldetako magazin horietako bat?

—Ez, niri lehen esan dizudan moduan, egiten dudana gustatzen zait. Orain dela pare bat urte saio horietako bat egiteko aukera eskaini zidaten eta ezetz esan nuen. Oso temati jarri nintzen albisteetan jarraitu nahi nuelako. Niri informazioa lantzea gustatzen zait. Badakit era horietako magazinetan ere

informazioa landu daitekeela baina bihotzezko gai arrosak, oso errespetagarria iruditzen zaizkidan arren, niri ez zaizkit batere interesatzen. Oso gustura nago albistegietan eta albistegietan jarraitu nahiko nuke.

—Nolakoa da ezagutzen ez dugun Maddalen Iriarte? Gai izango zinateke zeure burua bi hitzetan laburbiltzeko?

—Kontu horiek niretzat gordetzen ditut jeneralean. Orain arte, ongi lortu dut eta

saiatuko naiz bide beretik jarraitzen. Nire gauza batzuk ezagutu dira baina, hala ere, Euskal Herrian beste hainbat lekutan ez bezala, intimitatea gordetzea posiblea dela uste dut.

—Orduan, txarto eramaten duzu ospetsu eta ezaguna izatearena?

—Txarto baino gehiago, *erregular* eramaten dudala esango nuke. Batzuetan atsegina da jendeak zuk egiten duzun lana errekonozitzea, jendeari ezin zaio eskubide hori ukatu, izan ere, gu egunero beraien etxeetan sartzen gara eta. Gainera, oso era maitagarrian inguratzen zaizun jendea ere badago eta oso era maitagarrian minutu bat lapurtzen dizu. Eta orduan ez dizute minutu hori kentzen,



“Komunikabide publiko batean ari gara lanean, herriak ematen duen diruarekin. Hemen ez gaude jolasteko baizik eta informazioa ahalik eta zuzenen emateko”

esan diren gauza mingarri asko gezur hutsak izan dira eta horrek nolabait erne jartzen zaitu. Jendeak batzuetan zu plastikozko-edo ote zaren inpresioa izaten du, sentimendurik ez duzula...

—Zeintzuk dira zure akatsak eta bertuteak? Egia al da oso gogorra zarela lanean?

—Exijentea naiz, lehenengo eta behin

neure buruarekin eta gero nirekin lan egin behar dutenekin. Komunikabide publiko batean ari gara lanean, herriak ematen duen diruarekin eta hemen ez gaude jolasteko baizik eta informazioa emateko eta saiatu behar gara dauzkagun baliabideekin gauzak ahalik eta hobekien eta zuzenen egiten.

—Baduzu oraindik bete ez den ametsik?

—Orain arte bezalako ilusio berberarekin lanean jarraitu ahal izatea baino ez nuke nahi. Horixe da eskatuko nukeena.

—Maddalen, denboran atzera egiteko aukerarik balego, zerbait aldatuko zenuke?

—Seguru asko, gauza batzuk hobetuko nituzke, baina zerbait aldatzen denean ondorengo gauzak aldatu daitezkeenez, ez dut horretan pentsatzen. Gaztelaniaz esaten den bezala, *"Jesusito, Jesusito que me quede*


Paelleta ko txabolak

Egun handia da *Paella eguna* Getxon. Lehen, ohitura galdu bada ere, paella lehiaketa ez ezik, txabola txapelketa ere egiten zen. Herriko laguntaldek arkitekto eta etxegile bihurtzen ziren egun batzuetan eta sekulako lana hartzen zuten eraikinik ikusgarriena altxatzeko. Orrialdeotan ikusiko dituzuen arte lan hauek 1975 eta 1978 urteetan ospatu ziren paella egun horietan eraiki zituzten herriko lagun taldeek.

Argazkiak: **Kepa Urkitza**








[erreportajea]

Egun bateko opo

Uda eta beroa heltzen direnean, hobeto egongo ginatekeela galdutako paradisu batean pentsatzen dugu askotan; itsasoko ur epelak gure oinak laztantzen edari tropikal bat dastatzen dugun bitartean... Baina Bizkaitik atera gabe ere, gauza ugari egin daitezke, gure herrialdea paradisu txiki bat baita. Hurrengo lerroetan, uda honetan Bizkaian zehar, oinez, autoz, txirrindulaz eta etxetik atera gabe ere egin daitezkeen txango batzuk proposatzen dizkizuegu. Guztiak egun batean egin daitezke.

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Uretan

Udako ohizko bainua hartuz baino askoz ere modu gehiagotan gozatu daiteke oinarrizko likidoa. Ausartu zaitez

Kanoan Gernikako itsasadarrean

Uretan busti barik ibitzeko, aukera ona da Laida Kanoak enpresak Urdaibain zehar eskaintzen duen 3-4 orduko txangoa; inolako zailtasunik gabekoa eta, marearen laguntzari esker, esfortzu txikiarekin burutu daitekeena. Paisaia, jakina denez, zoragarria da. Honez gain, Laida Kanoak itsasora irteerak ere eskaintzen ditu, zodiaklean eta gida baten azalpenak eta guzti.

www.laidakanoak.com

Ogeia, kala polit bat

Hondartza handiak eta jendetsuak gustukoak ez dituztenentzat, leku aproposa da Ogeia; Ea herritik hurbil dago 175 metroko kala hau. Paradisu txikia baina ederra. Hala ere, ondo ekipatua: dutzak, paperontziak, mahaia eta haur jokoak ditu. Aproposa bainu bat hartzeko zein urpekaritza egiteko.



Bainuetxea

Urtean zehar pilatutako estresa askatzeko ez da ideia txarra Lekeitioko Emperatriz Zita hotelera joatea. Eskaintza oso ona da: igerileku girotua, sauna... Bi orduko zirkuituak egin daitezke, dutxa, hidromasajea, jakusia eta beste hainbeste lasaigarri (11 euro). Ordutegia: goizeko 9etatik gaueko 9etara. Ez da beharrezkoa hoteleko bezeroa izatea zerbitzu hauek baliatzeko. Erreserba egitea ezinbestekoa da.

Tf: 94 684 26 55

Bilboko ibaiaren jaiotza

Ura eta natura gustukoak dituenak hori guztia aurki dezake Orduñatik sei kilometrotara, Ibaizabal Ibaia jaiotzen den lekuan; inguru oso ederra. Ibaiak zeharkatzen dituen pagadi ederrekin gozatzaz gain, hegazti ugari ikus daitezke; putreak, txantxangorriak, pirripioak...

Pantailaren aurrean

Alferra bazara, sarean murgildu eta proba itzazu txango birtualak

Bizkaian zehar

www.bizkaia.net orrialdean, lehendakari-tza/turismo luzapenetan sartu, eta han hamaika ibilaldi birtual egiteko aukera eskaintzen dizkigute, Bilbo eta Bizkaia osoan zehar. Gure herrialdeko panoramika ederrak gozatzeko aukera botak zikindu gabe. Ikusgarriak dira hiru dimentsioetako irudiak. Benetan, merezi du.

www.bizkaia.net

Katalunia eta Grezia

Katalunia eta Greziako leku historiko eta arkeologikorik ezagunenak hiru dimentsiotan ezagutzeko aukera ezin hobea da web honek eskaintzen diguna.

www.ub.es/telemac/qtvr/

Sevilla


Sevilla osoa hiru dimentsiotan ikusteko aukera, Urrezko Dorretik ateratako argazkiei esker. Historia, udal kale zerrenda, agenda, Sevilla ezagutzeko aukera ezin hobea, hegoaldeko beroa jasan barik.

www.turismo.carmona.org

Galizia

A Coruña ezagutzeko aukera eskaintzen digu side honek. Argazki onak eta hiru dimentsiotan Galiziako inguru ederrak ezagutzeko hara joan gabe.

www.galiciavirtual.net





Txirrindulaz

Osasuntsua eta garbia, txirrindulak gure herrialdea patxadaz ezagutzeko aukera ederra eskaintzen digu

Bidegorritik

Bidegorriak txirrindularientzat baino ez diren bide alternatiboak dira, ohizko errepideetatik guztiz bereizita. Bizkaian 15 bidegorri inguru ditugu, gehienak nahiko laburrak. Luzeena eta bai erabiliena ere Portugaletetik La Arena hondartzaraino doana da. 11 kilometro ditu eta inguruko bidegorririk ezagunena da hondartzarekin lotuta dago eta. Arriskurik gabeko irteera aproposa izan daiteke.

Mendian

Mountain bikez ibiltzea nahiago duenak badauka nora joan. Jata mendian, errepidea egoteaz gain, txirrindulaz egiteko zirkuitu luzea dago. Lemoizko zentral nuklearraren amesgaiztotik hurbil eta itsasoari begira. Inguru ederra txirrindulaz egiteko.

Errepidetik

Bizkaiko errepideak jarraituz, irteera politak egin daitezke. Horietako batek, Getxotik Morga mendateraino eramango gaitu, Maruri, Mungia, Fruiz eta Olabarri herriak zeharkatu ostean. Inguruko zikloturistek ondo ezagutzen duten ibilbide honek (erabilienetako bat da) 65 kilometro ditu (joan eta etorri) eta zailtasun gutxikoa da. Morga mendatea gogorra egin litzaieke txirrindulaz ibiltzen ohituta ez daudenei, bost kilometroko igoera da, baina izerdia merezi du.

Botak jantzita

Gure herrialdeak eskaintzen dituen aukerekin gozatzeko modurik osasuntsuena ibilbide batzuk oinez egitea da

Enkartazioak

Karrantza aldea Bizkaiko eta Euskal Herriko inguru ezezagunetako bat da. Hamar udalerrik osatuta, nekazal gune menditsu hau auzo askotan sakabana-tuta dago eta bereziki polita da. Bisitatu behar diren gauza eta leku harrigarrien artean, El Suceso harana eta Bizkaiko Parke Ekologikoa ditugu. Ikustekoak dira baita Pozalaguako kobazuloak, bere estiloko garrantzitsuenetariko batzuk Europa mailan. Egun eder bat pasatzeko aukera ezin hobea, Bizkaiko bazter zoragarri honek eskaintzen diguna.

Elorrioko nekropolia

Elorriotik hurbil, San Adrian baselizaren azpian, Argiñetako nekropolia dago. Hilerria harrizko 21 hilobi eta bost hilarrrik osatzen dute. Bisitatzea merezi duen leku ederra, landaz inguratuta.

Sollube mendatea

Mungia eta Bermeo artean kokatuta, Sollubeko igoera autoz egiteko da eta ez dauka berezitasun handirik, baina goian errepide nagusia alde batera uzten badugu eskuman dagoen errepidea hartuz, 45 minutuko ibilbide polita daukagu mendiko tontorreraino. Han dauden telebista errepikagailuetatik inguruko bista ederrak daude. Horregatik bada ere merezi du egitea.



Burdinazko hesia

Uribe Kostako hainbat lekutan gaur egun oraindik ikus daiteke 1936ko gudaren arrasto asko; Muñarrikolanda mendiaren tontorreko edo Barinatxe hondartza gaineko bunkerrak eta talaiak, Sopela eta Urdulizko lubakiak... gerra mingarri baten aztarna tristeak, iragana oroitzeko ibilbide aproposak.



Autoan

Autoa hartu eta, Bizkaitik irten barik, egun osoko txango politak egin ditzakegu, eta proposatuko dizkizuegun lekuetara heldu bezain pronto, onena autoa aparkatu eta inguruari merezi duen arreta jartzea da

Urdaibai

Oka ibaiaren inguruan zabaltzen den ingurune zoragarri honek interes natural handia dauka paisaia, fauna eta floraren aldetik. Hori dela eta 1984an UNESCOk Biosferaren Erreserba izendatu zuen. Santimamiñeko kobazuloak, Oma harana eta basoa, Laga eta Laidako hondartzak edo Elantxobe ederra ditugu bisitatzeko.

Bizkaiko begiratokia

Gernikatik 15 kilometrora kokatuta, Bizkaiko Begiratokia imajinatu dezakegun lekurik ederrenetariko bat da, eguraldi onarekin, goitik gure herrialdeko zati garrantzitsu bat ikusi daitekeelako. Igoeraren bukaeran, mendia zeharkatzen duen errepidea alde batera utzita, Oiz mendira ere abiatu gaitezke.



Aiara harana

Amurriotik Balmasedarako errepidetik ikusten dugun paisaia ederra da eta baita Aiara harana bera ere. Gainera, bertan dagoen parke naturala eta Giuriko ur jauzia oso ikusgarriak dira. Handik hurbil baita Bilboko ibaiaren jaiotza ikus daiteke. Zonalde honi probetxurik handiena ateratzeko euri garaiak hobekak dira; hala ere, edozein sasoitan bisitatzea merezi du.

Lea-Artibai

Euskara, euskal izaera eta tradizioak ondoen gordetzen jakin izan dituen eskualdea dugu Lea eta Artibai ibaiek mugatzen dutena. Paisaia ere ez da makala; Santa Eufemiko ermita eta aurreko mendatetik dauden bista ikusgarriak, Markinako monumentu historikoak, Ondarroa eta Lekeitioko kaiak... ^m

Kultura

Udako sargoriak saihesteko museo batean sartzea ez da plan txarra. Gurean eskaintza uste baino zabalagoa da



Euskal Herria Museoa

Euskal Herriko hizkuntza, etnografia eta historiaren museoa. Alegria jauregia, Allende-salazne kalea, 5 Gernika. Ordutegia: 10:00-14:00etara eta 16:00-19:00etara. Igandeetan 10:00-13:00etara. Jaiegunetan itxita oporraldietan izan ezik. Tf: 94 625 54 51.

Euskal Museoa

Euskal Arkeologia, Etnografia eta Historia Museoak, besteak beste, Bizkaiko maketa izugarria, herri altzaritegia eta kultuzko piezak biltzen ditu. Gurutze kalea, 2. Bilbo. Tf: 94 415 54 23. Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 10:30-13:30etara eta 16:00-19:00etara. Igandetan 10:30-13:30etara. Astelehenetan eta jaiegunetan itxita.

Guggenheim Museoa

Guggenheim Bilbao Museoaren bildumak mende honetako azkeneko hamarkadetako artistarik nabarien lanak biltzen ditu. Bestetik, maiatzaren 28tik irailaren 3ra arte, *Londreseko The Royal Academy of the Arts*-ek antolatuta *Paris, arteen hiriburua* erakusketa ederra egongo da. Abandoibarra etorbidea, 2. Bilbo. Tf: 94 435 90 00. Sarrera, 5 euro. Ordutegia: Astelehenetik igandera, 11:00etatik 20:00etara.

Dantza

Hogeita zortzigarren urtez jarraian, Portugalete nazioarteko folklorearen hiriburu bihurtuko da. Uztailaren 25etik 28ra zortzi konpainia pasatuko dira udalerritik Elai Elai kultur elkartearen eskutik; Cochabambako Folklore Eskola (Bolibia), Naiden Kirov (Bulgaria), Badma Seseg (Buriatia errepublika), Ekobios (Kolonbia), Karangahan konpainia (Filipinak), Nowa Huta Ahots eta Dantza taldea (Polonia), Identidad Dantza Tailerra (Peru) eta Portugaleteko Elai Alai bera. Ez zaizu damutuko. ^m

Udako kirolariak

Bela, hezetasuna, nagia... Udan gorputzak atsedena eskatzen du. Eguraldi onarekin, gusturago egoten gara hondartzan, herriko jaietan edota beste edozein lekutan, *drinking, tumbing* edo *zapping* egiten izerdirik bota gale. Hala ere, badaude uda izerdi patsetan eman behar duten kirolariak. Hona eskualdeko batzuk.

Testuak: Javi G. del Herre Argazkiak: Asier Menthaka



Areetako Eduardo Canok iaz Euskal Liga irabazi zuen

Eduardo Cano. 16 urte, Areetakoa. Itsasoan hazia

Eduardo Cano gaztea Areetako *José Luis de Ugarte Bela Eskola*-ko promesa handienetakoa da. Zortzi urterekin hasi zen bela egiten eta ordutik hona sari batzuk irabazi ditu; besteak beste, birritan Euskal Liga, azkenekoa iaz bertan. *“Gurasoak zaletu handiak izan dira beti eta adina eduki nuenan ikastaro batean apuntatu ninduten Areetako Bela Eskolan. Geroago taldean sartzeko aukera eskaini zidaten eta, izugarri gustatzen zitzaidanez, baietz esan nuen”*. Gaur egun Eduardo irakaslea da, bere belauntzi propioa dauka eta entrenatzen jarraitzen du. *“Entrenamenduak ez dira bereziki gogorrak. Batzuetan alferkeria dela eta, asteburuetan bakarrik ateratzen naiz itsasora”*, azaldu zigun. Denboraldia irailetik ekainera izaten da, baina entrenamenduak inoiz ez dira bukatzen. Orain, adibidez, irailean Bartzelonan Espainiako Txapelketa izango da eta han egongo dira Areetako Bela Eskolako gazteak. *“Txapelketa hauetan maila handia egoten da. Gure helburua sailkapenean, erdiitiek aurrera, lehenengo 30en artean gelditzea da”*, esan zigun Eduardok. m



Xabier Zorrilla: “1999an Kontxarako sailkatu ginen; gogoangarria izan zen”

Xabier Zorrilla. 26 urte, Algortakoa. Boga, boga, marinela

Lagun batekin hasi nintzen Algortako Arraun Taldean eta berak aspaldi utzi zuen arren, nik hemen jarraitzen dut jo eta ke”. Horrela azaldu zigun Xabier Zorrilla getxoartzarrek zelan hasi zen estropaden munduan. Hamar urte igaro dira ordutik eta arraunketa kirol gogorra bada ere, Xabik ez dauka kirol hau baztertzeko asmorik. Gazte honek informatika enpresa batean behar egiten du Alonsotegin. Egutero, lana bukatu eta gero, Arriluzera etortzen da entrenatzera. *“Arraun taldekook ez gara profesionalak; zaletasun handia daukagulako egiten dugu”* azaldu zigun. *“Udan batzutan gogorra egiten da; asteburuetan gauez parranda egiterik ez daukagu eta astean zehar egutero arratsaldez, hondartzara joan barik, entrenatzera joan behar dugulako”*. Hala ere, orokorrean merezi duela pentsatzen du Xabierrek. Aurten bateletan bigarrenak sailkatu dira Bizkaiko Txapelketan eta trainerutan hirugarrenak Euskadikoan. Kirol-arrakasta hauekin neke guztiak ahazten dira. *“1999an Kontxarako finalerako sailkatu ginen; gogoangarria izan zen”*. m

Iñigo Urretxua. 23 urte, Algortakoa. Laster profesionala

1995ean mountain bike egiten hasi zen eta Bizkaiko txapelketa eskuratu zuen. Bi urte geroago Euskadiko txapelketa irabazi zuen eta errepidera pasatu zen. Dagoeneko Iñigok sei urte daramatza afizionatuetan (horietako lau *Olarra-Consultec* taldean) eta iaz profesionala izateko zorian egon zen. Azkenean ezin izan zuen lortu eta txirrindularitza uztea pentsatu zuen arren, jarraitzea erabaki zuen. Heziketa fisikozko ikasketak bukatu ditu oraintsu eta orain *IVEF* egin nahi du. Baina bere benetako ametsa txirrindulari profesionala izatea da. Euskaltel-en korritu nahiko luke baina badauki ez dela erraza izango, nahiz eta denboraldi bikaina egiten ari den. Aurten momentuz garaipen bi lortu ditu; Gorlako igoeran lehenengoa izan zen eta bosgarrena Lleidako itzulian. Han La Bonaiguan bukatzen zen etapa etapa ere irabazi zuen. *“23 urte ditut eta profesionala izateko garaia heldu zaidala uste dut. Nire ametsa Euskaltel-ekin egitea da; euskalduna naiz eta zerbait irabaziko banu hemengo zaletuei eskaini nahi nieke”*. m



Iñigo Urretxua: “Nire ametsa Euskaltel taldean korritzea da”

Nikola Susaeta. 15 urte, Sopelakoa. Olatuen hezitzaile

Nikolak 15 urte baino ez ditu baina kresala odolana darma jaio zenetik. Bere aitak txiki-txikitatib buruan sartu zion surf egiteko zaletasuna. Hamaika urte zituela hasi zen olatuak harrapatzen aita, osaba eta arrebarekin batera (zaletasunak familiatik datorkio Nikolari) eta gaur egun Euskal Herriko surfaririk onenetariko bat da bere mailan. Iaz hirugarrena sailkatu zen Euskadiko Surf Txapelketan eta bigarrena Euskadiko Zirkuituan eta aurten, hirugarrena izan da Euskadiko Zirkuituaren lehenengo proban, Peñatxurin. *“Kirol hau gustuko baduzu ez da gogorra, baina egutero entrenatu behar dut udan zein neguan. Goizeko zortzietan altxatzen naiz lehenengo orduak aprobetxatu ahal izateko. Normalean bi ordu inguru egoten naiz uretan. Geroago bainulariak datoz eta zailagoa da surf egitea”*, azaldu zigun Nikolak. Sopeloztarra izan arren, gazte honek entrenamenduak ez ditu Sopelako hondartzan egiten soilik. *“Itsasoaren egoeraren arabera, batzuetan Meñakoz eta Mundakako hondartzetara joaten gara olatu onen bila”*. m



Nikola Susaeta, euskal surfaren promesa berria

[fotografia]

Paseante baten instantaneak



PINAR DEL RIO (KUBA), 2002

[fotografia]



AGGADIR (MAROKKO), 2001



FITO Y LOS FITIPALDIS, BIDEOKLIPAREN GRABAKETA (BILBO), 2002

Alvaro González

Abokatu izateko ikasi zuen Alvaro Gonzálezek (Getxo, 1976). Hala ere, berari gustazen zaiona, kamera aldean, paseatzea eta jende anonimoa behatzea da. Momentu erabakigarriak, instante adierazgarriak harrapatzen saiatzen da bere zuribeltzezko irudietan. Horren adibide argia, utzi dizkigun fotografia hauek dituzue. Duela zortzi bat urte hasi zen




Alvaro argazkiak hartzen eta bere argazkiak besteak beste, *El Correo*, *Egunkaria* edota *Diario 16* egunkarietan argitaratu dira. Discos Suicidas eta Subterfuge disketxeetarako ere lan egin du.



[fotografia]

BARTZELONA, 2001

EL MALECON (LA HABANA), 2001



MADRIL, 2002



MADRIL, 2002



Udako estreinaldiak

Udako **beroak saihesteko** aire egokitua duen zinema areto batean sartzea baino **plan** hoberik ez dago. Hauexek dituzue laster estreinatuko diren filmetako **batzuk**



Men in black

Zuzendaria: Barry Sonnenfeld (*Men in black*, *Wild Wild West*...).

Aktoreak: Tom Cruise, Max von Sydow.

Sinopsia: Beltzez jantzitako gizonek gure planetan bizi diren estralurtarrak kontrolatzen dituzte aspalditik.



MR. Deeds

Zuzendaria: Steve Brill (*Little Nicky*).

Aktoreak: Adam Sandler, Winona Ryder, John Turturro, Steve Buscemi.

Sinopsia: Gazte batek egunkari bat herentzian jaso eta bere modu berezian zuzentzen hasiko da.



Minority report

Zuzendaria: S. Spielberg

Aktoreak: Tom Cruise, Max von Sydow, Peter Stormare.

Sinopsia: Etorkizunean, Tom Cruisek antzeztzen duen poliziari egin ez duen hilketa bat leporatuko diote eta bere errugabetasuna frogatu beharko du.




Scooby-Doo

Zuzendaria: Raja Gosnell (*Solo en casa 3*, *Nunca me han besado*).

Aktoreak: Sarah Michelle Gellar, Freddie Prinze Jr., Rowan Atkinson.

Sinopsia: Ikertzaile talde honen abentura berriak, haragizko aktoreek (eta txakurrak) interpretaturik.



Udan zinema aretoetan ikusiko ditugun aktoetako batzuk: Freddie Pinzer JR, Winona Ryder, Adam Sandler, Tom Cruise eta Sarah Michelle; behean, Will Smith.

Uda hurbiltzen den heinean, Euskal Herriko eta Europako zine aretoetara Atlantikoaren beste aldetik heltzen diren filmak gero eta txarragoak izaten dira ...; edo alderantziz: jendea gutxiago joaten da zinema aretoetara eta horregatik proiektatzen diren pelikulak eskasagoak izaten dira. Edozelan ere uda honetan, betiko pelikula eskasez gain, estreinaldi garrantzitsu batzuk egongo dira. Esaterako, Barry Sonnenfeld-ek zuzendutako *Men in Black* filmaren ospetsuaren bigarren zatia Tommy Lee Jones eta Will Smith-ek antzeztua; *Mr. Deeds*, Adam Sandler lehenengo aldiz pantaila handian eta haragizko komediantearen azkeneko lana, bere laguna den Steve Brill zuzendariaren aginduetara eta John Turturro eta Steve Buscemi handien laguntzare-



kin; Steven Spielberg handiak zuzendutako eta Tom Cruisek protagonizatutako *Minority Report* thriller futurista edota *Scooby-Doo*-ren abenturak, Hanna eta Barberaren marrazki bizidun ospetsuak lehenengo aldiz pantaila handian eta haragizko aktoreek antzezturik. Aurrekontu handiko filmak uda honetan helduko zaizkigunak. Kalitateari buruz uda pasatu ostean hitz egingo dugu... m

Zinemagilea Borja Elortza

Getxoztarrak **laster** film laburra estrenatuko du



Argazkian, Borja Elortza

Borja Elortza Getxokoa da eta 21 urte ditu. Gazte izanagatik, modelo, zine zuzendaria eta aktorea ere bada eta bere ekoiztetxe propioa dauka, *Elorza Producciones*. Elortza zortzi urte zituela hasi zen kastingetara aurkeztzen eta modelo bezala lan egiten eta 18 urterekin bere lehenengo laburmetraia zuzendu zuen. “*Ama izan zen mundu honetan sartu ninduen*”, azaldu zigun. 2000an, Elortzak Pilar Alberdi idazlea ezagutu zuen Interneten eta elkarrekin lan egitea erabaki zuten. Horrela jaio zen *Estrella de noche*, Alberdik idatzitako eta Elortzak zuzendutako 30 minutuko maitasuneko istorio bixi bat gay tematikaren inguruan. “*Betacam digital*”-an grabatu genuen eta egin ahal izateko behar

genituen 900.000 pezeta kostata lortu genituen. Diru arazoak zirela eta, proiektua atzeratu zen baina irailean estreinatzea espero dugu”, esan zigun Elortzak. Baina pelikulak zuzentzeaz gain, gazte honek proiektu gehiago darabil. Bere ekoiztetxeak hainbat lan prestatu ditu hainbat telebistatarako. UK Telebistan emititu zen *Entérate* edo Tele Bilbao eman zuten *Tendencias* saioak egin zituzten eta gaur egun buru-belarri jarraitzen dute telebistaren munduan. “*Momentu honetan, ezin izango nuke gauza bakar bat aukeratu. Ekoiztea, zuzentzea, antzezte*... Mundu honekin lotuta dagoen guztia dut gustuko”. m

Harremanetarako:
www.elorzaproducciones.com

webgida

www.es.starmedia.com/ciberteo



Orrialde bitxia; historia osoko pelikula garrantzitsuenen hankasartzeak aurkitu daitezke bertan, internautek eurek aurkitutakoak eta orrialdean jarriak; batzuk, benetan harrigarriak.

www.cine.tiscali.com



Berriak, erreportajeak, elkarrizketak, trailerak deskargatzeko aukera, foroak eta kartelera hiriz hiri ezagutzeko bilatzailerak dira web orrialde on honek eskaintzen dituen aukeretako batzuk.

www.cinefantastico.com



Beldurrezko zinea gustukoa dutenak ondo pasatuko dute web eder honetan. Denetarik aurkitu daiteke; biografiak, filmografiak, pelikulak eta web askok nahiko luketen datu base osatua.

Tropofilms

film **laburrak** sarean **ikusteko** orrialdea

www.tropofilms.com helbidera jotzen baduzu, umorezko bideorik kontzentratuenak aurkituko dituzu. 10-15 minututan (gutxiago ADSL edukiz gero) bideoak jaitsi daitezke. Historien luzera 2 minutukoa da eta kalitate aldetik bereziki onak ez diren arren, borondate onez eta umore handiz eginda daudela nabaritzen da. Eduardo González, gunearen egileak esan zigunez, “*Ez dugu dirurik ateratzeko asmorik. Gure helburu bakarra ondo pasatzea da*”. 1997an sortu zuen tropofilms web orrialdea Eduardok, baina erabateko bultzakada 2000. urtean jaso zuten, laburmetrai bat Canal Plusen antolatutako *Notodofilm* txapelketa irabazteko zorian egon zenean. “*Ordutik jo eta ke gabiltza web orrialdean*”. Harrezkero tokia oso ezaguna egin da. “*Gero eta eskaintza gehiago jasotzen ditugu. Bestetik, nahi duten guztiek euren lanak bidal ditzakete eta orrialdean argitaratuko ditugu. Bideoak jaistea zein ezaugarraztea dohainik da*”. m

Bideoak ikusteko: www.tropofilms.com
Harremanetarako: tropofilms@terra.es





Zaramatimes

Roberto Mosok **Zarama** taldearen musika garaiko **kronika** pertsonala idatzi eta internet-en eskegi du

Roberto Moso, *Zarama* rock talde mitikoaren abeslaria izan zen gizon polifazetikoak liburu bat idazteko denbora atera du. Dagoeneko Interneten dago eta www.imbecil.com web orrialdean aurki daiteke. Liburua internautek irakurri eta modu errazean jaitsi ahal izateko prestatu dute. Gainera, Mosok liburua fotokopiatu eta banatzeko baimena eman du, beti ere jatorria aipatzen bada. *Flores en la basura* hamabost kapitulutan banatua dago eta bertan *Zarama* rock

taldearen garaiko kronikak, pasadizoak, iritziak... aurkituko ditu irakurleak. Lehenengo pertsonan idatzita dago, estilo arinean, zintzotasun handiz eta maisutasunez. Malenkoniatsuentzat zein 70 eta 80ko hamarkadak Euskal Herrian zelan bizi ziren ezagutu edo gogoratu nahi dutenentzat ezinbestekoa da *Flores en la basura* saretik jaitea. Gainera, *Zarama* taldearen lau kanta ere paratu dituzte liburuaren ondoan.

Non aurkitu liburua?
www.imbecil.com
<http://zaramatimes.imbecil.com/>

Musikaz blai

Udan era eta estilo guztietako musika **emanaldiak** izango ditugu eskualdean

Uda heldu da eta, urtero bezala, gure herri guztietan jaiak ospatuko dira. Musika barik nekez ospatzen dira jaiak eta horregatik asko eta asko dira datozen hilabeteotarako gure geografia txikian antolatu diren kontzertuak. Indartsuenak hurbil daude, Santurtziko jaietan izango dira eta. 14tik 19ra ezagunak bezain ezberdinak diren hainbat talde pasatuko dira handik. Esaterako, *Loquillo* rockeroa, *Barrikada* talde

mitikoa, *Skalariak* edo *Rosario Flores*. Honez gain, Larrabasterrako El Carmengo jaietan *La Otxoa*-k joko du; Urdulizen, iraillean, *Golden Apple Cuartet* eta *Xabier Muguruza* egongo dira; Gorlizen, *Oskorri*... Herriko taldeek ere euren txokotxoa edukiko dute. Adibidez, *Zodiacs* talde getxoztarrrak Plentziako jaietan joko du. Bestetik, Bilboko jaietako emanaldiak ere ez dira makalak izango. Erne! m



Kontzertu batzuk

Loquillo... > uztailak 14, Santurtzi

La cabra mecánica > uztailak 15, Santutzi

La Otxoa > uztailak 16, Larrabasterra

Barrikada > uztailak 17, Santurtzi

Skalariak > uztailak 18, Santurtzi

Rosario Flores > uztailak 19, Santurtzi

Oskorri > uztailak 21, Gorliz

Ken 7 > uztailak 26, Gorliz

Urgabe > uztailak 27, Gorliz

Ken 7 > uztailak 27, Algorta

Doctor Deseo > abuztuak 1, Erromo

Eraso eta Ene bada > abuztuak 2, Erromo

Reggae jaialdia > abuztuak 3, Erromo

Los cinco bilbainos > abuztuak 5, Gorliz

Zodiacs > iraila, Plentzia

Golden Apple Cuartet > irailak 8, Urduliz

Xabier Muguruza > irailak 14, Urduliz



Erradiografia



Zodiacs taldeko kideak

Izena: *Zodiacs*. **Nondik dator izena?** *"Gure aurreko izena Astronighters zen baina aldatzea erabaki genuen eta Zodiacs jarri genion; fuerabordak arin ibiltzen diren bezala, gure izenak azkartasun hori adierazi nahi du".* **Jaio ziren:** Taldeak kide asko ezagutu ditu. Gaur egun daudenek, guztiak eskarmentu handikoak, urte bi daramatzate elkarrekin jotzen. **Nongoak dira:** Guztiak Uribe Kostakoak. **Taldeko kideak:** Asier Gurrutxaga (bateria), Ignacio Garbayo (ahotsa eta gitarra), Miguel Guzmán (baxua), Borja Gil

(gitarra eta ahotsa). **Gustuko dute:** Rock-&xrola. **Diskografia:** Gabonetan euren lehenengo diskoa atera zuten Animal Records disketxeren eskutik; *Pinball rock*. **Besteak beste, jo dute:** Madrilén, Bartzelonan, Galizian... **Joko dute:** Páramo Rock jaialdian (abuztua) eta Plentziako jaietan (iraila). **Euskal musikaren egoera:** *"Denetarik dago; mota guztietako musika egiten da eta hori, ona da".* **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. m

Harremanetarako: **Felipe 94 430 68 25**

diskoak

Suspira y conspira
Doctor Deseo
Hilargi records



Francis taldeko sarritan abeslariak esaten du: *"Gu profetak gara gure lurrean"*. Eta horrela da, nekez topatuko duzu *Doctor Deseo*-k jotzen ez duen heririk uda honetan. Talde bilbotarrak hogeit urte daramatza gure artean eta entzulea ez da aspertzen. Diskoa primeran dago, baina ez galdu euren zuzenekoak; itzela!

Auskalo
Alaitz eta Maider
Elkarlanean



Hirugarren diskoa besapean dutela azaldu zaizkigu atzera *Alaitz eta Maider* uda honetan. Erromeria talde gisa ezaguna den bikote hau apur bat urrundu da bere ohizko estilotik eta oraingoan, esaterako, kitarrek soinuaren aldean presentzia nabariagoa dute. Disko fina, goxoa eta atsegina, eta aldi berean bitala.

Alice
Tom Waits
Alice Epitah



Horrelako disko bat Tom Waits-ek baino ezin du egin. Disko berria baino, gehiago ematen du bere aurreko diskoen nahasketa eder eta inteligente bat. Samurtasun une ahaztezinak topa daitezke kanta batzuetan eta beste batzuetan berriz, une ulergaitzak. Tom Waits munstrua da. Ez galdu bere musika ezagutzeko aukera.

> Nire kanta kutunak JOSEINA ETXEBARRIA*



ERDARAZKO KANTA KUTUNAK

01. Ramones "It's alive"
02. Ramones "Leave home"
03. George Winston "December"
04. 10.000 Maniacs "In my tribe"
05. Massive attack "Blue lines"
06. Stone Roses "Stone Roses"
07. Led Zeppelin "Led Zeppelin"
08. Wim Mertens "Man Of No Fortune And With A Name To Come"
09. El último de la fila "Enemigos de lo ajeno"
10. U2 "Under Blood Red Sky"

EUSKARAZKO KANTARIK ONENAK

01. Hertzainak "No time for love"
02. Itoiz "Lanbrora"
03. Negu Gorriak "Hipokrisiari Stop"
04. Ruper Ordorika "Erdoilarena"
05. Berri Txarrak "Ikusi arte"
06. Zarama "Bidea eratzen"
07. M. Laboa "Oroitzen Zaitudanean..."
08. J. C. Pérez "Bitakora Kahiera" (disko osoa)
09. Deabruak Teilatuetan "Gaur euria..."

Hasier Etxeberria > idazlea

“Beste batzuek izango dituzte euren intelektualak, baina arraioa!, gureak ez dira makalak”

Hasier Etxeberria idazle eta kazetariak *Bost idazle; Hasier Etxeberriarekin berbetan* izeneko liburua argitaratu berri du Alberdania argitaletxearen eskutik. Bertan Atxaga, Lertxundi, Saizarbitoria, Izagirre eta Sarriionandia idazleak elkarrizketatu ditu.

—Bost idazle eta bostak izen handikoak. Baina zergatik bost eta zergatik hauek eta ez beste edozein euskal idazle? —Bistan da gehiago ere izan zitezkeela hautatutako idazleak, baina norberak bakarrik jakiten du norberaren berri. Nonbait jarri behar zen marra eta nik horiek bosten atzean jartzea erabaki nuen. Zergatik? Euren lana asko maite dudalako eta, gainera, literatura eta pentsamentuaren inguruko eztabaida interesgarrienak eurek bostek plazaratu dituztelako azken urteotan. —Zelako harremana daukazu euskal literaturaren maisu hauekin? —Eurekin dudan harreman pertsonala bes-



Hasier Etxeberriak astero *Sautrela* literatur saioa aurkezten du ETB1ean

te idazle askorekin daukadanaren antzekoa da. Gertatzen dena da liburu hau idatzi eta gero, gauzak ez direla berdin izango. —Zer zenuen buruan elkarrizketei ekin zenienean? Liburuaren egitura zein izango

zen hasieratik bazenekien ala pixkanaka-pixkanaka sortu zen? —Neuri asko interesatzen zitzaidan erantzunak topatzea, horixe nuen lehenengo kezka. Hala ere, ez zen hori izan helburu


udarako liburuak

Hobe nuen etxean...
Horace McCoy
Igela



Nobela beltza ederra maisu baten eskutik; Horace McCoy. McCoy 1897 jaio zen Tennessee eta 1955ean Beverly Hillsen hil zen. Idazlea izateaz gain, McCoy gidolari ere izan zen Hollywooden eta zinearen industria ezagutu zuen, beraz. Han kokatutako istorio honek Hollywooden alde iluna erakusten digu; osperako bidean bazterrean gelditutako jendearena.

Mugaren ariketa
Ander Iturriotz
Elkar



Poesia gutxi argitaratzen da Euskal Herrian. Ale urri horietako bat duela gutxi argitaratu den Ander Iturriotzen azken lana da. Zoria, kaosa, mugak, espazioa, denbora eta Jainkoa dira liburu honen gai nagusiak. Gipuzkoarra izan arren, 1961etik Iturriotz Bilbon bizi da. Soziologian doktorea eta Filosofian lizentziatua, EHUko irakaslea da Gizarte Zientzien Fakultatean. *Mugaren ariketa* bere hiru garren liburua da.

Leuropa
Pablo Sastre
Susas narratiba




Leuropa Pablo Sastren azken nobela da eta lurralde arrotzetan barrena, kamioiz egindako bidaia bitxi bat kontatzen du, eskupulorik gabeko tratularien artean. Sastre 1955ean Madrilen jaio zen eta mutikoa zela Euskal Herrira etorri zen. Eskarmentu handiko idazlea da eta dagoeneko sei nobela idatzi ditu, ospetsuenak; *Mariaren mendea*, *Itzalaren ertzean* eta *Henriren irudia*.

bakarra, gure idazleen maila bikaina ezagutaraztea ere hortxe zegoen esaterako. Egituraren kontu hori ere, aski argi eduki nuen hasieratik: modu errazean eman nahi nion irakurleari. Hala ere, ez bedi inor nahas, modu errazean esan dut eta ez, modu inozoan. Bi gauza dira horiek eta, nire ustez, bigarrenetik askotxo daukagu lehendik ere. Ezin uka daiteke, hala ere, prozesu guztietan bezala, garapena eta aldaketa eduki zutela gauzatxo batzuek, baina oinarria, abiapuntuan erabakitakoa da.

“Asko interesatzen zitzaidan erantzunak topatzea, horixe nuen lehenengo kezka”

—Idazlea idazleei galdezka, lagunak lagunei... Zaila izan da tonu serioa aurkitzea? —Teatro apur bat izan zen “orain zera galdetu nahi dizut” edo “erantzun beste galdera honi” bezalako gauzak esatea, baina, zer nahi duzu, bada, horrelakoa izaten da gure lana. Haiek eta ni txakur zaharrak gara honez gero, eta ez da arazo handiegirik egon. Idaztea dugu profesio eta bokazio. —Elkarrizketetan esan duten guztiarekin, zerekin geldituko zinateke? —Zaila da ezer apartatzea. Nire ustez, denek eman dute goren maila. Oro har, zein maila duten erakusten dute hemen eta ez da

txantxatakoa. Zorioneko gaude. Beste batzuek ere edukiko dituzte euren intelektualak eta pentsalariak, baina arraioa!, gureak ez dira makalak. —Liburua bi pertsonari eskainita dago: Martin Ugalde eta Felix Etxeberria, zure aita. Zergatik horiei? —Hara, gure aitak erakutsi zidan euskal kulturaren baitan bazela mundu interesgarri bat. Txiki-txikitatik ezagutu dut nik mundu hori: Aresti, Mirande, Rikardo Arregi, euskara batua, Etxaide... eta beste guztiak. Kalera irteten nintzen eta nire lagun guztiek martziano bat nintzela uste zuten, ez baitzeken zertaz hitz egiten nien ere. Euren erreferentziak beste batzuk ziren, erdararen mundukoak. Nireak ez, eta horretan gure aitarena izan da meritoa. Eta Martin Ugalderi dagokionez, mundu horretako gizon, handi, garbi, langile eta dotoreenetakoa da. Artista handia, gizon maitagarria... Denborarekin bere lagun egin naiz eta ia etxeokak gara orain. Zein hoberik bi gizon eredugarri hauek baino, liburua eskaintzeko orduan? ^m



Bost idazle...
Hasier Etxeberria
Alberdania,
350 orrialde

udarako liburuak

Paperezko hegazkinak
Lutxo Egia
Susas narratiba



Londres lainotsu batean, protagonista, 36ko gudan ibilitako Ben Capon kazetari ingeles ospetsuaren arrastoan murgildurik dabil Caponeren ilobarekin batera, baina lana ez da erraza izango. Komunikabideak azaltzen dira nobela honetan eta euren papera zalantzatan jartzen da. Estilo aldetik liburu arina, esaldi laburrez josia eta indartsua.

Xake mate
Alberto Ladrón Arana
Elkar



Nobela laburrentzako Agustin Zubikarai lehenengo saria irabazi zuen lan honek munduko bigarren gerra osteko Alemaniara eramaten gaitu, gurpil-aulki batean dabilen mutiko bakarti eta lotsati baten historia kontatzeko. Idazlea Alberto Ladrón iruinxemea dugu. 1967an jaioa, Ladrónek ipuin bilduma ugari eta nobela batzuk argitaratu ditu. 2001ean Irun Hiria saria irabazi zuen *Itzalaren baita* lanarekin.

esaterik badut

Esti Ezkerra

Oherako kontuak

Batzuetan pertsonaia xelebrenek ere egun batetik bestera idazle handi bilakatzeko duten gaitasunak harrituta uzten nau. Agian oker nago, baina nire ustez idazle bat handi egiten dutena liburuak dira, ibilbideak alegia, baina antza denez dudan ikuspegia jada ez dago modan. Aurrekoan interneten *The New York Times* egunkaria gainbegiratzen ari nintzela, Catherine Milleti buruz egindako albiste batekin egin nuen topo. Gogoan dut, bai, Mademoiselle Millet, orain hilabete eskas Bilbon literatura eta erotismoari buruzko jardunaldi batzuetan egon baitzen hizlari. Eta gogoan dut bereziki literatura erotikoaz esan zidana, aspergarria eta gustu txarrekoa iruditzen zitzaiola, sexuaren izenean kalitate eskaseko literatura egiten zelako. Gainera, sailkapenetan ez omen du askorik sinesten. *The New York Times*-ekin jarraituz, hark ordezkatzeko duen hiriak Mademoiselle Millet besoak zabalik hartu zuela zioen albisteak, eta haren liburuaren «ikaragarritzko ekarpenaren» goraipamenak zekartzan jarraian. Zeren ekarpena, baina? Hogei urtez Mademoiselle Milleten ohetik igarotako amorante andana agertzeaz gain, zer du berezia *La vie sexuelle de Catherine M.* liburuak? Horrek, baina, A kategoriako idazle bihurtu du frantziarra. Niri liburu astun, aspergarri, monotono eta eskasa iruditu zitzaidan. Baina frantsesek bapo pasatu dute Mademoiselle Milletek liburuan aipatzen dituen pertsonak gaur egun beren herrialdean zein kargu duten asmatzen. Portzierto, aipatu albistean literatura erotiko berriaren ordezkari izendatu zuten Millet. ^m

webgida



EUSKAL ONOMASTIKAREN DATUTEGIA

> www.euskaltzaindia.net

Euskaltzaindiaren webgunean badira zenbait argitalpen online kontsulta daitezkeenak. Horien artean euskal abizen, pertsona izen, herri eta mendien datu-basea topa dezakegu. Izango duzun haurren izena aukeratzeko (edota bere gaztelaniazko esanahia ezagutzeko), zure abizena idatzeko gaur egunean hobetsita dagoen forma erabiltzeko edo etxe aurrean duzun mendia behar bezala izendatzeko sartu web-orrian eta arakatu bertan dagoena.

Hizkuntza: nola ez!, euskara

WEBGUNERIK TXIKIENA

> www.guimp.com

Bere edukinak ez dira interesgarrienak, ezta diseinu erakargaririk ere. Orduan, zergatik sartu webgune honetan? Munduko txikiena delako. Bertan dagoena irakurtzerakoan itsu ez gelditzeko hobe zoom egiteko botoia sakatzen baduzu.

Hizkuntza: ingelese


NAVIGATOR

> www.nytimes.com/navigator

Edozein informazio mota bilatzeko haxe duzu abiapuntu eraginkorra: New York Times-en Navigatorra. Webgune honetan elkartu dituzte bertako



Testuak: **Iker Merchán** / iker@merchan.com



Mundutik Bilbora

Athletic Munduan Zehar ziberlaguntaldeak sarearen bidez futbol zaletasuna mantentzen du

Uribe Kostan biziz gero erraza da Athletic-ekin zaletasuna izatea. Baina, Finlandian edo Zelanda Berrian lan egingo bazenu bihotza zuri-gorria izaten jarraituko zenuke? Bada, hainbat lagunek orain dela bost bat urte galdera horri erantzuna aurkitu zioten: Athletic-en zaletuen lehenengo laguntalde ofiziala, AMZ. Mundu osoko bazkideak dituzte, eta poztza elektronikoaren bitartez egunero hainbat iritzi trukatzeko dihardute. Taldeko edonori 'email' bat bidalita, taldekide guztiek jasoko dute. Eta, ez kezkatu

Bizkaitik irten ez bazara: kide asko hemen bertan bizi dira eta.

Euren esperientzia guztiz multimedia da: urte askotan, interneteratu dituzte Herri Irratiaren "La emoción del bacalao" emanaldiak. Imajinatu zeure burua atzerrian gol bakoitzaren ondoren "bakalao, bakalao..." entzuten. Ez al da hori Internet-en benetako xedea? m

Non eskuratu informazioa?
<http://euskal.com/athletic/AMZ>
Nolako da benetako zaletua?
www.euskalnet.net/javieroski/cien_aynos.htm

Zer ote dira? Troiarrak

Ordenadorea kutsa dezaketen virusak

Ordenadorea kutsa dezaketen virus mota asko dira munduan. Azken finean, programa arruntak baino ez dira virusak (Word edo Photoshop bezalakoak), baina gauza erabilgarriak sortzeko prestatuak egon beharrean, gaiztakeriak baino ez dizkigute egiten. Hauen artean, txarrenetarikook, troiarrak ditugu.

Birus hauek ez dute berez ordenadorean ezer zapuzten, baina Internetera sartzen garenean gure ordenagailuaren atea zabaldu eta troiarrak edonori emango dio sartzeko baimena. Hortik aurrera, edozer gerta dakiguke: informazioa lapurtu, galdu edo kutsa diezagukete eta ordenadorearekin nahi dutena egingo dute. Imajinatu makinaren aurrean zaudenean bat-batean zuk ezer sakatu barik CDROMa bere kabuz zabaltzen dela. Ez al da beldurgarria?

Troiarrrei atea ixteko lehenik eta behin kontuz ibili beharko dugu heltzen zaizkigun posta elektronikoekin: jatorria ezezaguna bada ez zabaldu inoiz, eta ezaguna badugu ere kontuz ibili. Eta ez ahaztu gure Panda bilbotarra bezalako antibirus bat instalatzea.

aurkitudugu

Irudi bitxiak



Interneten irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilabetero argitaratuko ditugu: ukaldizkaria@telefonica.net

Sopelako hondartza ia zuzenean



Horrela ikusten da hondartza sarean

Gure eskualdean oraindik ez da *webcam*ak nonahi paratzeko sukarra hedatu. Esaterako, Barrikako udalak bertako San Juan jaiak zuzenean jarraitzeko bat jarri zuen herriko plazan (www.barrika.net). Gu sarean arakatzen ibili gara eta egun ondo ikusi daitekeen *webcam* bakarra Sopelako hondartzan kokatu dutena da; orduerdiro berritzen den hondartzako panoramika ikus daiteke. Udan oso praktikoa izan daiteke.

Helbidea: www.frussurf.com/diario

BILBOMICRO



“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoa: 4230213

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA LANTEGIAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Liburua >
Komunikabideak hemen



Begira kritiko bat komunikabideei

Industria herrietan, eta halakoak dira Espainiako Estatua eta Euskal Herria bera, media edo hedabideetatik itxuratzen da nagusiki iritzi publikoa. Euskal komunikazio sistemaren azterketak desoreka garrantzitsu batzuk uzten ditu agerian hainbat esparrutan, hala nola hizkuntzarenean edo enpresarenean. 2001eko maiatzeko hauteskundeetan inoiz baino ageriago geratu zen gaur egun Hego Euskal Herrian gizarte-komunikazioak duen garrantzia: baita komunikatzeko ahalmenean dagoen desoreka izugarria ere, aukera politiko eta sozial ezberdinen artean. Liburu honetan Euskadiko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko komunikazioaren egituraketa aztertzen da, begirada kritiko batez eta hiru alderdi nagusi kontuan hartuta: komunikazioaren kontsumo egiturak, euskara eta enpresa nagusiak. m

Komunikabideak hemen
Ramón Zallo, Patxi Azpillaga,
Juan Carlos De Miguel
Alberdania Zerberri Saila, 72 orr.

Pornolore aldizkaria

Ohizko agerkari pornoetako **parodia** den lehen euskal aldizkari **erotikoa** kalean da



Goian, *Pornolore* aldizkaritik lapurtu dugun irudi adierazgarri bat; behean, alearen azala

Maitasunik gabeko sexua oso gutxi da, baina sexurik gabeko maitasuna ere oso gutxi da, esaten zuen Marilyn Monroek eta *Pornolore*-ko sortzaileak bat omen datoz esaldi honekin. Horregatik, maitasun handiz, sexu aldizkari bat egin dute, lehenengo euskal aldizkari erotikoa dela esaten dute. Berton pornoa euskaraz (ikurrina eta guzti), txiste erotikoak, istorio beroak eta argazki gogortxoak aurki ditzakegu. *Pornolore*-n agertzen diren neskak (aldizkari pornografiko gehienetan gertatzen den bezala, ehuneko 90 neskak baitira) ederrak diren arren, ez dira euskaldunak (inork auzokide polit hori ikusteko itxaropenik bazuen jai dauka), baizik eta atzerritarak, gehienak ezezagunak (pornoan adituentzat izan ezik) eta gutxi batzuk ezagunak. Besteak beste Sharon Stone edo eta Demi Moore-en argazki beroren bat aurki dezakegu. *Pornolore*, *Ostiela* aldizkariaren ekoizpen bat da. *Ostiela*

1995eko abenduan jaio zen eta honezkero 26 ale argitaratu dituzte. Aldizkari kulturala, hiruhilabetekaria, satirikoa, kritikoa, umoretsu eta serioa, abertzale-epel edo euskaltzale-sutsua, horrela definitzen dute egileek *Ostiela*. m

943 16 18 35 / ostiela@autovia.com
Pornolore, 3 euro



Aspaldian desagertu zen Algortako *Bost Axola* irratiako esatari bat Amezti kaleko estudioan

Irrati libreak gurean

Adierazpen **askatasuna** eta autonomia oinarri

80ko hamarkadan, irrati libreak perretxi-koen moduan ugaldtu ziren Euskal Herrian eta laster, asko eta asko izan ziren komunikabide alternatibo hauek zituzten herriak eta auzoak. Irrati librearen helburuak komunikazio esparru berriak, independenteak eta autogestionatuak sortzea izan zen.

90eko hamarkadan, irrati librearen fenomeno asko epeldu zen eta hauetako asko desagertu egin ziren, esaterako, Getxon emititzen zuen Bost Axola irratia. Gaur egun, fenomeno hau hiltzorian zegoela ematen zuenean, gure eskualdean hiru irrati libre entzun daitezke. m

KOSKA IRRATIA (94.4 FM)
Uribe Kostako irrati librea

Duela lau urte sortua, Koska irratiak irrati librearen fenomeno berpiztu du Getxon. Legeztatua eta autogestionatua, irrati honek adierazpen askatasuna lantzea du helburu. Irratsaioak egiten dituztenen artean, era guztietako taldeak daude; unibertsitateko Euskal Adarra taldea, preso eta gazteen inguruan mugitzen diren kolektiboak, eta abar. Programazioaren %90 euskaraz da.

PITITAKO IRRATIA (107 FM)
Irrati librearen historia bizia Santurtzitik emititzen

Pititako irrati librea 1985ean jaio zen Mamariagako Auzo elkartearen eskutik. Kontrainformazioa eta autogestioa identitate ezaugarritzat hartuta, 1991tik Pititako kolektiboak kudeatzen du eta inguruan oso irrati ezaguna da.

TAS TAS IRRATIA (97 FM)
Gangurenetik Seranteseraino uhinak "okupatzen"

1992ko urtarilean jaioa, dirua irabazteko asmorik gabekoa eta talde politiko, erlijioso edota ekonomikoen presioetatik libre, Tas Tas irratia partehartzailea eta autogestionatua da. Irrati hauen artean programaziorik landuena eta osatuena du.

Kioskoa
Argia
astekaria

erreferentziazko aldizkaria



Aldizkari ezagunik baldin badago euskaraz, hori inolako zalantzarik gabe *Argia* aldizkaria da. Kalitate handiko astekari honetan, besteak beste, ederto jorratutako berriak, elkarrizketak, erreportajeak, eta jolasak aurkituko ditu irakurleak. Gaur egungo *Argia*, *Zeruko argia* eta *Argia* aldizkari zaharren ondorengoa da. Aipatutako argitalpen bi hauek hurrenez hurren, 1919an eta 1921ean sortu ziren eta Francoren diktaduraren garai gordinetan desagertu behar izan zuten arren, 1963an berriro plazaratu ziren, bateratuak eta *Argia* izenarekin. Urteak joan urteak etorri, *Argia* euskaraz idatzitako erreferentziazko agerkari bihurtu da Euskal Herrian. Independentea, zabala eta aurrerazalea, *Argia* aldizkariak badu bere edizio digitala ere. Orain harpidetza kanpaina abian jarri dute (ikusi 2. orrialdea). Merezi du. m

Kioskoan: 2,70 euro
Harpidetzak: 943 37 15 45
Sarean: www.argia.com

Jaietan bertsoz

Jakina da bertso tradizioko herri eta auzoetan jaiak bertso-saioen berezko eszenatoki izaten direna. Gurean ere hala izan zen berezko tradizioak iraun zuen artean. Gero etenaldia egon zen eta 1983aren inguruan Algortako Bertsolari Eskolak ostera ere ekin zion bide horri, Algortako San Inazioetan eta Portu Zaharreko jaietan bertso-saioak antolatuz. 1999an ALBEk proposamen berria egin zion Getxoko Udalari eta honek gogoz onartu. Orduantxe jaio zen JAİETAN BERTSOZ programa.

Testuak eta argazkiak: **ALBE**

Programaren berezitasunak

Programa honen helburu nagusia Getxo udalerriko auzoetan bertsolaritza eta, oro har, euskara eta euskal kultura sustatzea eta zabaltzea zen. Orduan, Getxoko auzo guztietako jaien zerrenda egin genuen. Ondoren, bertso-saioak diseinatu genituen auzo gehienetarako. Hori bai, saio motak eta aurrekontuak auzoaren tradizioaren eta ezaugarrien arabera zehaztu genituen. Bereztasunik handiena, baina, bertso-saioen aurrekontua kudeatzeko modua izan zen: gastuaren erdia udalak ordaint-



Pelloren keinuan udako eskaintzaren maila irakur daiteke.

zen du eta beste erdia auzoan auzoko jai batzordeek. Neurri honekin lortzen da, alde batetik, jai batzordeak kultur proiektu honetan inplikatzera, eta bestetik, jai batzordeari saioa prezio erdian ateratzea. Orain arteko emaitzak ezin hobeak dira. Tradizioko auzoetan bertso-saio antologi-koak antolatu ditugu, kalitate handikoak eta oso jendetsuak. Baina, beharbada, lorpenik handiena tradizio-rik gabeko auzoetan gauzatu dugu, Neguri eta Areeta tradi- ziorik gabeko auzoetan oso saio txukunak egin baititugu. m

Aurtengo jaietan bertso-programaren eskaintza

Aurtengoa laugarren urtea da, beraz, programa hau martxan ipini genuenetik. Auzoetako jaien aldia maiatzeko San Isidroetatik azaroko San Martinetara artekoa izaten da. Ondoan, banan-banan aipatuko ditugu auzoak, jaiak eta baita bertsolarien izenak ere, dagoeneko lotuta dauden kasuetan.

- 1) San Isidroak:** Maiatzaren 19an, Andra Marin, eliza ondoko zelaian, 13:30. **Gregorio Larrañaga “Mañukorta”, Onintza Enbeita eta Xabier Paia.** *Gaijartzaile: Josu Landeta.*
- 2) Karmengo Amaren jaiak:** Uztailaren 14an, Negurin, Gernika plazan. Bertsolariak: oraindik zehaztu gabe.
- 3) San Inazioak:** Uztailaren 28an, Algortan, Kasino plazan, 13:00. **Andoni Egaña, Jon Maia, Igor Elortza eta Fredi Paia.** *Gaijartzaile: Unai Elorriaga.*
- 4) San Inazioak:** Uztailaren 29an, Algortan, Kasino plazan, 13:00. **Ekitaldia: Erdu kanture.** Bertso jarrien emanaldia. Kantari gidaria: **Josu Landeta.** Trikitrilari laguntzailea: **Roberto Etxebarria.**
- 5) San Inazioak:** Uztailaren 30ean, Algortan, Kasino plazan, 13:00. **Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Amuriza eta Gregorio Larrañaga “Mañukorta”.** *Gaijartzaile: Josu Esnaola.*
- 6) San Inazio:** Uztailaren 31an, Algortan, Kasino plazan, 13:00. **M. Lujanbio, Jesus Mari Irazu, Unai Iturriaga eta Xabier Paia.** *Gaijartzaile: P. Unzurrunzaga.*
- 7) Andra Mari Aingeruenaren jaiak (Erromoko jaiak):** Abuztuaren 3an, Erromon, Santa Eugenia ikastetxetik abiatuta, 19:00. Ekitaldia: Bertso poteoa. Bertsolariak: **Andoni Egaña eta Jon Maia.**
- 8) Andra Mari Aingeruenaren jaiak (Erromoko jaiak):** Abuztuaren 3an, Erromon, Santa Eugenia ikastetxetik abiatuta, 19:00. **Aitor Mendiluze, Sustrai Kolina, Fredi Paia eta Miren Loizaga.** *Gaijartzaile: Nahikari Aio.*
- 9) Portu Zaharreko jaiak:** Abuztuaren 15ean, gutxi gorabehera, Portu Zaharrean, Etxetxu plazan. Bertsolariak: **Mañu, Fredi eta Beñat Gaztelurrutia.**
- 10) Mesedeetako Amaren jaiak:** Irailaren 22an, Areetan, Ipotxen enparantzan. Bertsolariak: **Jon Maia, Miren Loizaga eta Aitzol de Kastro.**
- 11) San Martinak:** Azaroaren 10an, gutxi gorabehera, Hezetasun auzoan, kurtzeko oholtzan. Bertsolariak: oraindik zehaztu gabe.

Jaietan ikusi arte!



Solaskidearen

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Fredi Paia Algortako bertsolaria hobeto ezagutuko duzu.

- 1) Zein da Frediren izen osoa?**
 - a) Alfredo Eusebio
 - b) Alfredo José
- 2) Zer ari da ikasten gure mutila?**
 - a) Euskal Filologia
 - b) Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa
- 3) Ondoko musika tresnetatik, zein da Fredik jotzen ez dakiena? Trikitrixa, pianoa, gitarra, biolina eta txistua?**
 - a) Biolina
 - b) Gitarra
- 4) Fredi ibilita dago futbolearen eta rugbyan, baina aspaldion beste kirol baterantz eman ditu urratsak?**
 - a) Igeriketa
 - b) Esku pilota
- 5) Zein irratir libretan egiten du Fredik literaturari buruzko irratia?**
 - a) Koska irratia
 - b) Kosta irratia
- 6) Zein txapel jantzi zituen Fredik 1999an?**
 - a) Berritxu sariketako, BBKkoa taldekoa, Bizkaiko Eskolartekoa eta Euskal Herriko Eskolartekoa
 - b) ALBEkoa, Uribe Kostakoa, Larrabetzuko, Mungialdekoa eta Santutxukoa
- 7) Zein ikastaro egingo du aurtengo UEUn?**
 - a) Sukaldaritza
 - b) Bertsolari gazteen sexu harremanak



10ekotxikian Fredi Paia

- 1) Fredi, busti zaitez. Ipar Uribeko Txapelketa igaro berria da. Zeintzuk izan dira gehien harritu zaituztenak? Eman hiru izen eta hiru arrazoi.
 - Aitzol de Kastro, Gatikako saioa sendo irabazi zuelako eta fi sartu.
 - Xabier Paia, neurri luzean hartu duen erraztasunagatik.
 - Miren Loizaga, parte hartu ez hartu dudana ibiltzetik oso maila erakustera pasatu delako.
- 2) Zenbat bertso-saio egiten ditu Alfredo Paia urtean, gutxi gorabehera?
 - Kalkula daiteke astebururo saio pare bat egiten dudala, batez beste.
- 3) Arteragoko Bizkaiko Txapelketan 5. lotu zinen. Zein asmo duzu aurtengorako?
 - Bizkaiko Txapelketan badira bertsolari batzuk sistematikoki f heltzen direnak. Neuk ere finalista iraunkorren zerrendan egon gura nuke.
- 4) Zer esango zenioke basamortuko lorea zarela esaten dizun bati?
 - Begiak ondo zabaltzeko; izan ere gure ustezko basamortu hau nahiko oasi bihurtuta dago aspalditxotik.
- 5) Zein dira zure bertsolari ereduak zaharren artean? Eta gazteen artean?
 - Zaharren artean Jon Lopategi aipatuko nuke. Uste dut Bizkai gazte gehienon iparra izan dela eta badela. Gazteen mailan ez nuke izen bakar bat aipatuko. Zorionez estilo desberdinak daude eta bertsolari asko honegatik edo hagatik gustatzen zaizkidanak. Zerrenda luzeegia litzateke.
- 6) Aukeratu bertsolari bat zurekin bertso parranda latza egiteko Ekaitz Larrazabal Katxo .
- 7) Aipatu zure ustez bertsolari on batek izan behar lituzkeen kalitateak.
 - Irudimena, arintasuna, ironia, hitz jokoetarako trebezia, zir ahalmena eta apaltasuna.
- 8) Zu ALBEko gaztetxoaren irakaslea zara. Zelako etorkizuna ikusten diozu talde horri?
 - Oparoa. Ikusi besterik ez dago azkeneko urte biotan Bizkai ma lortu duten sari mordoak.
- 9) Non kokatuko zenuke Fredi Paia bertsolaritzaren panoraman 20 urte barru?
 - Ziber-sagardotegi batean bertso-saio birtualak egiten.
- 10) ALBE-n bada talde bat, Gekko eskola goitizenekoa, bat-batean ederto baten moldatzen dena eta zu zeu ere, zelanbait, talde horretako kide zaitugunez, eskainiozu bertso bat, Fredi.
 - Gekko eskolan dabil / hainbat bertsolari / errima doinu eta / gidari. Jarrai diezaiola / bere bideari; u/agur eta

BEGI-BELARRI

Portu Zaharreko balkoikada berria

Udaburuarekin batera heldu zaigu Balkoitik balkoira bertso ikusentzunkizuna. Baina ekainaren 21ak, oraingo honetan, ez zituen soilik bereizi udaberria eta uda. Unai Iturriaga eta Aitor Mendiluze ere bereizi zituen, balkoi banatara bidaliz. Gauaroak lagundu egin zuen urteko bertso ekitaldirik itxarondakoenetakoa den honetan. Unai eta Aitorrek argi utzi zuten oso desberdinak direla. Baina bi-biek erakutsi zuten goi mailako bertsolariak direna. Argazkiak: **Andoni Crespo Astobiza - ALBE**



Arrantzale-etxeko ikurrina Euskal Herriko egoerari buruzko bertso on askoren lekuko mutua izan zen.



Unai Iturriagak azken tantara arte zukutu zuen bertsogaia.



Portu Zaharreko txoko goxoan eta izarren azpian zerbait edatea bertso ederrak entzun bitartean, 21ean bertan izan zirenen pribilegio bakana izan zen.



Unai, lehorte bat baino gehiago ezagutu baditu ere, loraldi betean dagoela erakutsi zuen balkoialdian.




ALBEko Xabier Paia bertsolariak bere ohiko berbajarioaz aurkeztu zituen aurtengo Balkoitik Balkoirako protagonistak.



Bigarren zatiko Romeo eta Julietaren bertso antzezpenak oso harrera ona jaso zuen entzuleengandik.



HIRUSTA



Bertsojartzailea: **Xabier Paia**

Gaia: **Balkoitik kalera**

Doinua: **Juana Bixenta Olabe**

1
Ilunabarra, haize epela,
arrantzale-plazan giro itzela.
Zergatik gerta liteke hori?
Aukerak badira bat edo bi:
bertsolariak,
horien zale handi-handiak,
bertsoak eta txaloaldiak.

2
Iturriaga ta Mendiluze
balkoitik balkoira bertsotan luze;
Mendiluze ta Iturriaga,
nahasketa bitxia ez al da?
Bi bertsolari
bi balkoietan bertso kantari,
bi ordu luzez jendea adi.

3
Uda honetan Getxo bertsotan,
mugi ipurdia, ez lotu lotan!
Egongo dira saio ugari
herririk herri, kabirik kabi;
bertso karrera
indartsu dator uda aldera:
balkoitik hasi eta kalera!

Jon Uribe

Oingo onetan Sopelan eon gara bertako dan Jon Uribegas berba eiten. Jon Sopelako gasolinere atzen bixi da, an bertan yaio san 1947n; besteak beste, itxason eta nuklearran eon da bearren. Bere bixitzari burus eta bere etze inguruko kontues ein dosku berba. Oiñ, oriek gustiak leiduteko aukera ixengo dogu amen.



Erretratuan, Jon Uribe

Testua: Urtzi Iglesias
Erretratua: Asier Mentxaka

—Non yaio sintzen, Jon?
—Yaio ta duzti emen, Sopelanan, *dieciseis del nueve del cuarenta y sieten*. Berrogeta amalau urte dekodas.

—Ser eitten sendun gazte denporan?
—Ba, eskolara yon, ta olgetan bere, abik bille ta dusti... serak euki dodas nik, biregarrok; oiñ es dekot baia... Gero, amabost urtegas fabriken sartu nintzen.

—Ondartzara yoten sintzen?
—Ondartzara gitzi yoten nas ni ta or bertan dau, pasu bi baño es dekos emeti, baia es dat gustaten; amarratzak aurtuten bai.

—Ta yoten sintzen iketza batuten ondartzara?
—Sareas; ni es orrenbeste, baia nik badekot beste anaje bat ni baño sarrau, iru urte diferentzia deku, ta beste geiau yoten san; bai, iketza ekarri andik. Gogorra san, sakuk eta sakuk igo, ta etorri ure ta... jo!

—Ta ganadu eukiten senduen?
—Bai, ganadu eukiten gendun, oiñ ez deku baie len bai. Beiek eta tzalak; atziñe atziñe idik bere bai baia nik idik es dodas esetu emen, solorako eukitteuen, solorako bearrerako; ta serakas bere eiten san solon, beiekas, gero beiekas.

—Gaste asi sintzen bearren, solon bere bear eiten sendun andik etorten sintzenen?
—Nik es nun itten kasi, domekatan edo

sapatuten olan geiau, ostantzen bestek itten eun, neupere bai baia gitziau, bestek geiau. Ta bedarrak ebagi... Obeto da seoser seguru. Ordun ori ixten san; etzen gogor. Ta solon bere, se ordun es san eoten oiñ daun tratorak eta serak; dusti beiekas eta... Ta gausa geiau, patate ta dusti geiau erein berebai, ta arto ta gari len; oiñ artorik eta es da erabiltzen. Oiñ apur bet etze-

“Getxoti orti bai eta emen bere bai, jo! etzek eta etzek eta pisuk eta pisuk”

rako ta apurtxu bet geiau eta fuera; denporak bere es dau laguntzen. (erostea igual merkeau irteten da oiñ, esta?) Pasten dana etzeko bakixu ser dan, ta bestek inbernaderotako ta... baia onegas laiñues... egun bi suge ta gero...

—Non ein dosu bear?
—Amabost urtegas sartu nintzen fabriken, emen Permesan, amar urten eon nintzen or. Gero yon nintzen nabegaten,

“Atziñe atziñe idik eukitteuen solorako bearrerako baia nik idik es dodas esetu emen; ta gero serakas bere eiten san solon, beiekas”

lau urte baño es, lau urte ein nusen nabegaten, gitzi; an, makiñen, engrasadoran ibil nintzen. Gero sei edo saspi urte nuklearren; an montaje isan da dusti, baia ni garbituten, jente kanbiate san lekun ta ibil nintzen, itzi arten. Ta gero emen aiuntamentun, plaiatan eta olan, tenporadatan.

—Itsason ibil sintzenen leku asko esetuko sendusen.

—Leku askotan eon nintzen, Brasileti, Holandan, Valentzian... minerala koisten gendun eta Santurcera ekarten gendun; iketza bere bai. Baia es gintzen asko eoten, karga arten; ensegida kargateuren ta onantza, portun ordu batzuk baño es gintzen eoten. Gero itsason denpora luse eoten gintzen.

—Eta oiñ jubilata?
—Oiñ jubilata baia es urtegattik. Nik kultzurrena dekot falta yaiorik ona ta beste dekot bere fastidiata, bakizu, *jubilación forzada*.

—Txikitan eseutu zendun Sopela asko kanbia da?
—Au es da asko kanbia, au gasoliñera baño; ostantzen emeti lengo les dau. Sopelana andik bai, emeti itteko bere daus

baia ondiño es. Emen uniko ori gasoliñere eta ori aiuntamentuko serak arbolak imin daude ta ori, ostantzen emeti... onek karabelak es siren eoten len baia au lengo les dau. Oiñ daus emeti seoser itteko aurki. Bai se esan doutze guri, tzaletak eta jarko daude ta... or goien bere itzeko daus. Ondiño pasako dires urte batzuk se oiñ abisa daude. Ori ondo estudiata eukiko dare asi baio lelau. Getzoti orti bai eta emen bere bai, jo! etzek eta etzek eta pisuk

Gurberbakeren 12 BERBA JATOR BATZUK? (IV)

Testua: **Xabi Bilbao**

“*Berbakere 10*”-eko *berbakaz segiduteko, hemen doatzuez modu esateko erabilten direzen berba (aditzondo) batzuk.*

kilínkolon (ibilli, egon,...): txarrerako joeran egon (pertsonak), edo erortzeko joeran (gauzak).
—*ámama zélan dabillen? Ba kilínkolon dabil aspaldi honetan.*
—*Birriten yosi dot botoi demónentru, baia kilínkolon dau óndiño.*

májo: ederto.
—*Aitxe ta ama zélan dabiltzézen? Májo dabiltzéz bieek bere.*
—*Honek mekánikuk májo itxi dosku automóbille.*

abrosúte, abrosidúte: aspertuta, nekatuta.
—*Telebisiñóaz abrosúte gauz, oiñ apénas ikusten du (dugu).*
—*Aitxe ta ama abrosúte dekoz ta guri datorku beran kóntukez.*

narraz: arrastaka.
—*Ze iten dozu hor bean narraz, súdekelez (sugek lez).*
—*Ezin ixen dot hainbéste pisúez eta narráz ekar dot maléte.*

géiez: deitzen, deika.
—*Non sartu zara ba? Géiez dekozu teléfono goxe duztin.*
—*Miñ hartu dau señek eta amari géiez dau oraiñ gixájo.*

berbaz, bérbatan: hizketan.
—*Bérbatan pasa daure dénpore ta oiñ karradéran dabiltzez.*
—*Májo egon gara arrasti duztin lagúnekaz berbaz.*

yántzan: dantzan.
—*Beharren doazela esan doskue ta yántzan topa duz (doguz)!*

agarradan: borrokan.
—*Horreri éziozu kontra iñ, ze kapaz da agarradan bere iteko.*
—*Demóniño dírez hónek úmek, beti agarradan tópaten doaz (dodaz).*


BERBA BARRIK demónentru: deabru, madarikatu.

Euskara ikasi dute

Ibon Astorkitza



—Noiz hasi zinen ikasten?
—Oso ondo gogoratzen dut: 1995eko urtarrilean.
—Eta bukatu?
—Bukatu, ez da inoiz bukatzen; egunero ikasi daiteke zer bait, hitzen bat,... Baina EGA,1998ko ekainaren 13an atera nuen. Egun hura ere ondo gogoratzen dut.
—Non ikasi zenuen?
—Leioako AEK euskaltegian.
—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—Euskararena barruan neukan hutsune bat zen. Euskalduna sentitzen nintzen arren, euskalduna ez nintzen eta hori aldatzeko matrikulatu nintzen.
—Zure kasua berezia da, gaur egun euskara irakaslea baitzara AEKn...
—Bai; EGA atera eta berehala egin nuen glotodidaktika ikastaroa lanean hasteko. Zortea eduki nuen eta pozik nabil irakasten.
—Zer da gehien kostatu zitzaizuna; zure unerik txarrena ikasle zinenean?
—Ez dakit; agian subjuntiboa, *nakioke* eta forma arraro horiek.
—Zein da garai hartako zure oroipenik onena?
—Hunkigarriena, Korrikan lekukoa eraman nuenean.
—Definitu euskara.
—Oskorri musika taldearen kanta batek dioenez: “Euskaldun egiten gaituena”. m



www.topagunea.com da elkartearen webgunearen helbidea

Topagunea
Euskal Herriko euskara elkarte eta herri aldizkariaren **elkartea** da Topagunea

Topagunea euskara elkarte eta herri aldizkariak biltzen dituen federazioa da. Aldizkariaren arteko harreman gune finkoa sortzea, ideiak trukatzeko topagune izatea eta administrazioarekiko harremanak bideratzea ditu helburu nagusi. Topagunea 1997an sortu zen prozesu bateratzaile baten ondorio gisa, hasiera batean hamabost bazkide eta langile bakar batekin. Gaur egun berriz, hamar kide inguruk egiten dute lan Topagunean eta elkarteak, 58 bazkide (euskara elkarte) inguru ditu. Hauek 8.500 bat bazkide biltzen dituzte eta 39 aldizkari argitaratzen; gehienak (35) Gipuzkoan eta Bizkaian. Nafarroa Beherean, Lapurdin eta Zuberoan oraindik ez dute bazkiderik. Desoreka honek azalpen erraza dauka, euskal hiztunen %80 baino gehiago lehen aipatutako bi herrialde hauetan bizi baita. Hala bada ere, Bizkaiko egoerak kezkatzen ditu gehien Topaguneko arduradunak, gure herrialdean Gipuzkoan beste euskal hiztun bizi baita eta euskara elkarte ugari dauden arren, jarduera

aldetik eginkizun asko daudela egiteko iruditzen baitzaie. Topagunearen helburua bikoitza da. Alde batetik, euskal gizarteak eskatzen dituen jarduera hauek plazaratzea eta bestetik, egileentzat ekonomikoki jasangarriak izan daitezten. Federazioaren barne dauden herri aldizkari guztien artean, astero 71.000 ale kaleratzen dira, hamabostero 39.300 ale eta hilero 60.000. Emaizta hauek argi uzten dute Topaguneak biltzen dituen aldizkariak eragina handia dutela euskal gizartearen. m

Topagunea

- 1997an sortua.
- Bazkideak: Euskal Herriko 58 euskara elkarte. Tartean, Bizarra Lepoan eta Berbots Erandion Euskaraz.
- 39 euskarazko herri aldizkari, tartean UK aldizkaria (27 Gipuzkoan, 8 Bizkaian, 3 Nafarroan, 1 Araban).
- www.topagunea.com

Martin Ugalde Kultur Parkea
euskararen alde lan egiten duten erakunde eta enpresen parkea abian

Ekainaren 27an inaguratu zen Andoainen gizon handi baten izena daukan euskararen aldeko gunea: **Martin Ugalde Kultur Parkea**. Proiektu hau euskara eta euskal kulturarekin zerikusia duten enpresa, erakunde eta elkarteak gune berean biltzeko asmoz sortu zen orain dela bi urte. Sustatzaile nagusiak, euskal kulturaren inguruan lanean ari diren hainbat enpresa izan dira; besteak beste, *Euskaldunon Egunkaria*, *Gráficas Lizarna* eta *Zabaltzen Kulturgintza*. Guztira parkeak 20.000 metro karratu ditu eta etorkizunean gehiago izango badira ere, honezkero 15 enpresa eta 200 langile ari dira lanean han gaur egun. Parkeak industria, teknologia eta kultura batzeko asmoa du. Bertan, inprentak, komunikabideak, bulegoak eta askotariko langileek osotasun bat bezala egingo dute lan. Esan bezala, andoaindar unibertsal baten izena du parkeak; idazlea, ikerlea eta Euskaldunon Egunkariaren Ohorezko lehendakaria den Martin Ugaldereana, hain zuzen ere. m

Ezkerrean, Martin Ugalde; eskuinean, parkearen lehen harria jarri zuten eguna



Bizkaiko 10.000 toponimo
sarean jarri ditu Aldundiak

Sarritan toponimoekin sor daitezkeen zalantzak argitzeko, eta inguruaren arabera sailkatuta (herriak, mendiak, errekek, elizak...) Bizkaiko 10.000 leku izen baino gehiago bildu ditu Aldundiak katalogo honetan. Hauek denak ikusteko Aldundiaren web-aren (www.bizkaia.net) euskara orrialdean sartzea nahikoa da. Luzaroan Euskaltzandiarekin elkarlanean egindako lanaren fruitua den katalogo hau, ez da bere horretan geratuko eta eten barik osatuz eta berrituz joango da. Lekuren baten izena jakin gure baduzu, baduzu nora jo. m

Non topatu: www.bizkaia.net (euskaran sartu)

[baicomment]



HERRIKO zenbait dendatan horrelako karteltxoak paratzen ari dira merkatarik batzuk (esaterako, Ameztiko Estankoan edota Okinder ogidendan). Zalantza barik, euskaldunontzat mesedegarriak dira.

[nocomment]



Aurreko ale batean Areetan “kalea” berba karteletatik ezabatzen dutela salatzen genuen. Getxon, golf zelaiaren inguruan gauza bera egiten hasi omen dira.



zure **diru**laguntza
behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztiko 6, 4. solairua 5.
48990 Gebro / aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37
faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Gazpatxoa

freskagarri naturala

Udako beroak ondo ezagutzen dituzte hegoaldean eta horregatik han ez da sekula gazpatxorik falta. Egiteko erraza da eta hondartzatik bueltan hozkailuko atea zabaldu ondoren han badaukazu, ez zaizu damutuko. Hasteko, barazki guztiak ondo garbitu eta puska txikitari zatitu: tomatea (aurretik azala kendu), tipula, piper berdea, pepiniloa, berakatz eta ogi zati bat (kopuruak, behean ikusi). Honi guztiari olio, ozipina, gatza eta pipermina gehitu eta gero, izotz ale batzuekin nahastu. Hozkailuan sartu dena. Biharamunean turmixetik pasatu, eta gero txinotik, azken hau gera daitezkeen barazkien azalak baztertzeko egin behar da. Gazpatxo tradizionalak *gora egiten* du; horregatik nik oso pepino eta berakatz gutxi botatzen diot. Hotz hartu behar da, zopa moduan edo basuan edanda. m

osagaiak (lau lagunentzat)
8 tomate • tipula erdia • piper berde erdia • berakatz ale bat • ozipina
pepinilo zati bat • oliba olio • gatza • pipermin zuria • ogi zati bat



itsaso arana / jolastoki-koa

Udarako

ardoak eta beste edari batzuk

Uda, eta berarekin batera beroa eta hezetasuna heltzen direnean, jeneralean atseginagoak egiten zaizkigu ardo freskoak eta arinagoak. Uda kanpoan pasatzeko asmoa baldin badugu, komenigarria eta gainera ohitura ona ere bada, bertako edariak probatzea. Herrialde guztiek dute euren edari freskoa. Esaterako, Asturiasen sagardoa; gurean txakolina; Andaluzian, *manzanilla*, *finoa* edota *barbadillo*; Galizian, *albariño* edo *ribeiro*, eta abar. Zerrenda amaigabea da. Esaera zaharrak dioenez, *gorostian gorosti eta Donostian Donosti*. Bestetik, kaba, berez hotza denez, oso erraz edaten da; udan, gainera, alaiagarria ere bada.



Ardo beltza edateari uzteko asmorik ez dutenek edozein jatorri izendapeneko urteko ardoa edan dezakete, apur bat fresko edan daiteke eta. Kriantzak ez dira astunak eta edatera gonbidatzen dute. Jan aurretik, hau da, aperitibo moduan, apur bat ahaztuta dauden ohizko sifoi ardoa edo vermoutha har daitezke, gure ahosabaiak beti eskertuko ditu. Hala ere, beroari aurre egiteko onena, norberari on egiten dizkioten edariak hartzea da beti. m



Kaba, berez hotza denez, oso erraz edaten da; udan, gainera, alaiagarria ere bada.

Punta Galea

jolas-kirol elkarte gastronomikoa



Txoko honetako kideetako batzuk. Laster bilgunearen 25. urteurrena ospatuko dute.

Izena: Punta Galea jolas-kirol elkarte gastronomikoa (Sociedad gastronómica recreativa y deportiva Punta Galea). **Presidente:** José Antonio Delgado. **Helbidea:** Illeta 10, behea. Algorta. **1977an** eratua. **Bazkide kopurua:** Gaur egun 46 lagun dira eta laster 50 izatea espero dute. *"Zorte handia daukagula esan genezake bazkide guztiak aparte-koak direlako"*, esan zigun Jose Antonio Delgado presidenteak. **Historia:** 1974an lagun koadrila batek Punta Galea Txirrindulari Elkarte sortu zuen eta hiru urte geroago lagun berberek "Punta Galea jolas-kirol elkarte gastronomikoa" izeneko txokoa eratu zuten. **Sortzaileetako batzuk:** José Antonio Delgado (presidente), Ramón Fullaondo, (presidenteordea)... **Aretoko ezaugarriak:** Txokoa guztiz berrituta dago, 170 metro karratu ditu, komun bi, egongela handi bat, telebista Via Digitalarekin eta 80 lagunentzako jantoki ederra. **Emakumezkoak:** Hasiera-hasieratik emakumeak lagunduta sar daitezke txokoa. m

Euskal Herriko sukaldari handien errezetak euskaraz sarean

Azken urteotan sukaldaritzari buruzko era guztietako hainbat liburu (jatetxe gidak, janari liburuak, errezetak...) argitaratu da gure artean, baina tamalez gehienak erdara hutsean. Hutsune hau betetzeko *Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak* bere webgunean gastronomiari buruzko informazio asko, ona eta euskaraz paratu du. Zazpi herrialdeetako, zazpi sukaldari, zazpi jatetxeak, bakoitza bere betiko errezeta batekin. Hauexek dira hurrenez hurren sukaldariak: **Luis Irizar** gipuzkoarra, Arabako **Jon Sanchotena**, Bizkaiko **Fernando Canales**, Nafarroa Behereko **Firmin Arrambide**, Maurice Isabel lapurterra, Zuberoako **Pierre Chilo** eta Nafarroako **Pilar Idoate**. Haien azalpenak eta errezetak sarean daude, guztion esku, euskaraz eta garrantzitsuena, maila handikoak dira guztiak!

Non aurkitu: www.bagera.net/Bageranet/Ziberteka/Gastronomia



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA



JOKIN GARATE BAYO KIMETZ?GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01
48990 NEGURI 87


I aki Bitxitegia

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA



Janedan
urdaitegi

Adituak gapernik beriko eta
delicatesse produktuetan

Bidebieta, 4 behea Alangobarri 10
Tel. 94 676 58 79 Tel. 94 491 58 37
SOPELANA ALGORTA

SABIN ARANA > Jolastoky jatetxeko sukaldaria

“Nire sukaldaritzaren oinarria betiko euskal sukaldaritza da”



Sabin Arana, Jolastoky-ko kanpoaldean

Sabin Arana getxoztarra, izen bereko sukaldari ospetsuaren semea, *Jolastoky* jatetxeko sukaldari nagusia da gaur egun. 32 urte ditu eta ia bizitza erdia eman du familiako jatetxe honetan, 18 urte zituela lanean hasi zen-eta aitarekin beharrean. Urteak joan urteak etorri, bai Sabin eta bai *Jolastoky* bera ere izen handikoak dira biak.

Sabin Aranak Neguriko jatetxean hartu gintuen. *Jolastoky*-k 80 urte ditu eta itzela da; Neguriko Leioako etorbidean dago, dekorazioa ikusgarria da eta parajea paregabea, oso ondo zaindua. Hango terrazan eserita berbetan egon ginen.

—Aitarekin ikasi eta lan egin duzu eta inoiz ez duzu sukaldaritza eskolarik zapaldu. Autodidakta zara?
—Ez, ez; nik etxean ikasi dut... ikusten nuena eta aitak irakasten zidana. Bera izan da inoiz eduki dudana maisurik handiena eta gehien miresten nuen pertsona eta sukaldaria.
—Zelan definituko zenuke zure sukaldaritza?
—Denboraldikoa, klasikoa baina aldi berean gaur egungoa. Hala ere, zera esan behar dut: nire sukaldaritzaren oinarria betiko euskal sukaldaritza da.
—Orokorrean bezeroak plater zehatzen bila etortzen zaizkizue *Jolastoky*-ra, ala gauza berriak probatzera datoz? Zein da platerik eskatuena?
—Beti, denboraldiko platerak. Orain txipiroiekin hasiko gara eta duela gutxira arte perretxikoak eta Asturiasetik ekartzen dugun izokina izan dira platerik eskatuena. Neguan, berriz, piperrak, oilagorrek eta galeperrak ematen ditugu gehien bat. Jeneralean hona datorrenak badaki zer eta noiz aurkitu dezakeen *Jolastoky*-n.

—Zer da garrantzitsuagoa sukaldaritzan; osagaiak ala sukaldariaren trebetasuna?
—Osagaiak badu bere garrantzia, noski, baina sukaldariaren trebetasuna erabakigarria da. Bestetik, sukaldaria lanean gus-tura badago, hori bere lanean igarriko da. —Askotan entzun dugu sukaldaritza oso gogorra dela; oso sakrifikatua. Hainbesterako al da?
—Sukaldaritza lan gogorra da, bai, baina aldi berean bizioa ere bada. Gustatzen bazaizu ez da hain gogorra egiten. Hori bai, jakin behar duzu ondo zer nahi duzun eta zerbait galtzeko prest zauden ala ez. Sukaldariok adibidez, badakigu astebururo lan egin behar dugula...
—Asko entzun dugu Euskal Herrian oso ondo jaten dela. Ados zaude?
—Bai, baina nire ustez leku guztietan jan daiteke ondo. Leku bakoitzak bere ezaugarriak ditu; Italian inon baino hobeto jan daiteke janari italiarra, Txinan janari txinatarra eta hemen, gauza jakina da, maisuak gara betiko euskal sukaldaritza prestatzen. Katalunian eta Galizian ere primeran jaten da.



—Eta euskal sukaldaritza berriaz zer?
—Belaunaldi berrien artean maisu handiak daude; Alvaro Martínez, Fernando Canales, Aitor Basabe...
—Ze osagai behar da sukaldari estimatua izateko?

“Aita izan da inoiz eduki dudana maisurik handiena”

—Gogoak izan, zorte apur bat eta ilusio handia. Gero, gure gainetik beste batzuk daude; Subijana, Argiñano eta telebistan agertzen direnak. Baina horiek sukaldariak izateaz gain, enpresario ere badira; denbora asko eman behar dute ikertzen eta sustapena egiten. Baina denera ezin da egon bat eta azkenean denbora gutxiago ematen dute sukaldean horiek. Nik ez nuke egingo; ez dut osperik bilatzen. Nire kasuan, adibidez, ezagunagoa da jatetxea, Jolastoky, ni baino eta horrela izan dadila, urte askotarako!
—Zein da zure platerik gustukoena?
—Dilistak eta arroz zuria. Arroza ia egunero jaten dut. Plater landu asko ezin dira egunero jan. Egunero jateko etxeko janaria gustatzen zait.
—Eta zer ez zenuke sekula jango?
—Enpanadilak; ez jan ezta prestatu ere. Txikitatik gorroto ditut. m



Ezkerrean, jatetxeko atearen detaile bat. Goian, bodega, Itsaso Aranaren ardurapean dagoena; itzelezko bitxiak gordetzen ditu



Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa



Sarrikobaso, 44 ☎ Tel/Fax: 94 430 11 91 ☎ 48990 Algorta

EREAGA

Bidaiak Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
GETXO



GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak -

Ordu a Mendatea 1 T: 430 22 13 GETXO	Telletxe 13 T: 460 02 88 ALGORTA
--	--



GAVRKO

GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR -



HIRURAK

T: 430 53
Sarrikobaso 15

La estrada jatetxea

Bizkaiko Zubipean

Ibaizabalaren ondoan, Bizkaiko Zubitik hurbil dago *La estrada* jatetxea eta aspalditik eta merezimenduz oso ezaguna da Areetan eta, oro har, Getxo osoan. Gaur egungo jabeek orain dela sei urte hartu zuten jatetxearen ardura eta denbora honetan ospe hori lortzeko etengabe lanean jardun dute. Oscar Blas sukaldariak Euskal Herriko sukaldaritza berria zein betiko sukaldaritza trebetasunez jorratzen ditu; eguneko arrain freskoa (esaterako, erreboiloa, naturala, primeran prestatzen dute), *onddo eta barazki panatxea* eta trufa tarta bere plater izarak dira eta baita ere hara biltzen direnek gehien estimatzen dituztenak. *“Bezeroak, jeneralean ez ditu etxean presta ditzakeen platerak eskatzen, landuagoak eta bereziagoak bilatzen ditu”*, azaldu zigun Oscarrek lana alde batera utzi barik. *La estrada*-ko jantokian 50 bat lagun sartzen dira, aukeratzeko, karta ederra. On egin. ^m

LA ESTRADA / Tomás Olabarri 4, Areta / Erreserbak: 94 464 80 01
Menua: 8,40 euro / Menu berezia: 16,25 euro / Igandetan itxita



Argazkian, Arkaitz Hermoso barmana eta Koldo Bilbao, jabea

barrak



Argazkian, Juan Manuel Pazos

Danena taberna

20 urtez pintxogintzan

ALGORTAKO “UVE” ezagunetatik hurbil kokatuta, Danena kafetegiak orain dela 22 urte zabaldu zituen ateak. Ondo zaindua eta hornitua egoteaz gain, Danena leku abegikorra da kafe bat dastatzeko, zein mokadu dastatuko dugun erabakitzen dugun bitartean. Jabea, María Pilar Mallea, hango sukaldaria ere bada. Asteazkenetik, egunero 20 pintxo mota ezberdin prestatzen ditu eta 25 baino gehiago asteburutan. *“Egun normal*

batean 200 mokadu baino gehiago saltzen dira”, esan zigun bere semeak Juan Manuel Pazos. Bera da barrako arduraduna eta ondo daki beraz zeintzuk diren pintxorik eskatuena. *“Arrakastatsuenak olagarro pintxoak dira; galiziar erara, olio-ozpinetan... Horiek dira baita lan gehien ematen dutenak”*, azaldu zigun.

DANENA TABERNA
Villaondoeta kalea (Algorta)
Telefonoa: 94 430 46 72

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu
etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!
Ugari
supermerkatua
ORDUTEGIA
Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30
Gaztariñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

udondo
taberna
zatoz!
Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

uk

zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako menu bat GARDOKI Jatetxean

Nor da?

- Bilbon jaio zen 1971n. Loiukoa da.**
- Maisua da penaltiak jaurtitzen.**
- Semea eduki zuen garaian txupete bat eramaten zuen ahora sartzen zituen golak ospatzeko.**

> Aurrekoaren erantzuna: Laura Mintegi

> Irabazlea: **Zelai Nikolas* (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki
Jatetxea

Mendieta kalea 47
Sopela
Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

70 UK

UK 71

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA?MARI?GETXO

ITXASGANE

prentsa ¥ aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZKRISTALDEGIA

¥ BIDRIERAK

¥ GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN

¥ ZPILUERRALDOIAK

¥ INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)

T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS

RIKI

UMEAK - GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543



TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ondo dago zure itxurak arduratuta egotea, baina zurea gehiegizkoa da txo! Lan kontuan itxura zaintzen jartzen duzun arretaren erdia jarriko bazenu, gauzak beste era batera aterako litzazkizuke.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Bizitzak hamaika buelta ematen ditu eta zuk denboran atzera egingo bazenu bezala ikusten duzu zure burua orain. Gazte sentitzen zara, baina kontuz, ilusioa baino ez da, urteek ez dute barkatzen.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Erosoegi bizitzaren ohitu zara, baina hila bete honetan amaituko da espero ez duzun bisita batekin. Bestetik, haurtzaroko orotzapenek eguneroko bizitzan isla izango dute eta gauza berriak egin nahi izango dituzu.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Horregatik, esaterako, min egin diezun pertsonei azalpenak ematen hastea ez da ideia txarra. Guztiak, onerako, harrituko dira eta zu hobeto sentituko zara.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Udaberriak zoratu egin zaitu, odola irakiten daukazu eta lasaitu beharko zenuke. Maitasun kontuetan ezusteko triste bat izango duzu, baina hori gainditzeko zure odola hozten jakingo duzu. Eutsi goiari!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Lan arloan erabakiak hartu beharko dituzu, baina ez larritu zure buruarekiko duzun segurtasun horrek asko lagunduko dizu eta. Dinamikoago izaten saiatu beharko duzu hurrengo hilabeteetan.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu. Eta, nork daki? Agian, maitasuna ere piztu daiteke zuon bion artan.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Zure buruari gehiegi exijitzen diozu eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Osasunak eskertuko dizu atseden handiagoa hartzea. Besteren laguntza eskertzekoa izaten da, zergatik uko egin?

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Familia arteko harremana sakonki aztertuko duzu eta une txarra jasaten ari den familiako kide horrentzat laguntza handikoa izango zara. Honek zure lagunak aldera batera uztera eramango zaitu, baina egoera ulertzen jakingo dute.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Nahiko arduragabe zabilza. Lanpetuta zaudelako aitazkiak ez ditu honekero familia eta lagunak konbentzitzen. Bizitza sentimentalean ahaleginak egiten saiatuko zara gauzak bere onera itzuli daitezzen, baina agian beranduegi da.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Nahiko zeurekoi zabilza aspaldion eta horrek familiarekin arazoak ekarriko dizkizu. Etxean denbora gehiago igaro beharko zenuke, kalea zure etxe bihurtzen ari baitzara eta denbora gehiago pasatzen duzu lagunekin etxekoekin baino.

NEGUA





(Azaroak 16 abenduak 20)
Lanean murgiltzea arazoak ahazteko terapia bezala erabiltzen ari zara eta azken finean arazoa estaltzeko ez du esan nahi arazorik ez dagoenik. Maitasun kontuetan zalantza asko izango dituzu, baina norbaitek zure bihotzaren atea joko du.

Lur planeta. Lurreratzen.atala



Eman zidaten astindu basatia eta gero, begiak zabaldu dituzte atzera. Harrituta nago primeran sentitzen naizelako nahiz eskuineko oin bi ditudala ematen duen. Nire inbasio planetarioa jarraitu ahal izateko zapata egokituko didaten esperetarekin, kalean behera bakarrik abiatzen naiz eta hara! Kioi batean aldizkari baten azalean nire aurpegia aurkitu dut, zorabiatu baino lehen kamara baten flasha gogoratzen dut. Emakumezkoak jipoitzea leporatzen didate aldizkarian; planeta honetan oso modan omen dagoen kirola. Arraioa! Nire irudi publiko hau ez zait batere komeni planeta hau inbaditu behar badut, hobe anonimatutik eta disimuluz txistu eginez egiten badut. Bitakora koadernoak: komunikabideak gorrotatzen dituzte. Nahiz eta beti hain gezur beltzik ez bota. Izan ere, txiki eskolan egin genuen antzerki lan batek oso kritika ona jarraituko du...

...(gidoia bere osotasunean, aktoreen inter pretazioa eta eszena jartzea), nigan laugarren boterearekiko interes goiztiarra piztu zen. Nire aitzak kazetari izateko sonbreifua janztea oso garrantzitsua zela azaldu zidan. Nahiago izan nuen amagaz berba egin. Berak kazetari ona izatea oso txarto ikusia zegoela esan zidan, zirkulu txiki batzuetan ez bazen behintzat — Zirkulutxuak zehaztu nuen nik nire jakintasun goiztiarra demostratzeko eta prentsa larrosa herria edota bihotzekoa jorratzeko aholkatu zidan. Nomenklatura hau norberak-kioskeroa zorabiatzeko dituen gogoen arabera izaten da. Aldizkari hauetako orrialdeak



...Azken hauek pelikulina erabiltzeagatik eta-otordu p etan zopa zurrupatzeagatik dira ezagunak; horrela kama arreta erakartzen dute. Hauei deskarga elektriko dibe rriak ematen dituen tramankulu batekin eskua luza daki Jeneralean, handik gutxira disko bat plazaratuko dute. bigarren mailako ospetsuak daude. Euren bizmodua hon dartzat eta igerileku ezberdinetan biluzik ibiltzean da Genero honen barruan, nabarmentzen dira edozein gairi buruz berba egiteko gai diren ar ahoberoak. Aldi berea bizitza osorako pentsio ugari ordaindu behar izaten di hilabetero. Azkenik, lehen mailako ospetsuak ditugu. Harbasoek harreman sexualak euren artean baino ez izate ohitura zuten, eta euren lehen abizena, puntu-batek ja ta maiuskulaz idatzitako inisial bat delako harro sent dira. Irratia topera goizeko ordu txikiak arte jar dez

